KULTURA AUZOLANEAN

# ERANSKINA, 'SORKUNTZA SOSTENGATZEKO SISTEMA BATERANTZ EUSKADIN' AZTERLANARENA

## SORKUNTZARI ZUZENEKO SOSTENGU ESTRUKTURALA EMATEKO ERAGILEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# ERANSKINA, ‘SORKUNTZA SOSTENGATZEKO SISTEMA BATERANTZ EUSKADIN’ AZTERLANARENA

## SORKUNTZARI ZUZENEKO SOSTENGU ESTRUKTURALA EMATEKO ERAGILEAK

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

| | |
|---|---|
| **Argitaraldia:** | 1.a. 2019ko azaroa |
| **Ale-kopurua:** | 150 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi<br>Kultura eta Hizkuntza Politika Saila<br>Departamento de Cultura y Política Lingüística |
| **Internet:** | www.euskadi.eus |
| **Argitaratzailea:** | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz |
| **Egileak:** | Ricardo Antón, Roberto Gómez de la Iglesia eta Anna Pinotti |
| **Koordinatzaileak:** | Rosa Abal (Karraskan) |
| **Itzultzailea:** | IZO |
| **Diseinua eta konposizioa:** | Leming Diseño |
| **Argazkiak:** | RGI, dokumentu nagusian, eta eranskinean aipatutako entitateak. |
| **Inprimategia:** | Printhaus |
| **ISBN**: | 978-84-457-3492-6 |
| **Lege-gordailua:** | VI 748-2019 |

# AURKIBIDEA

ARROPAINEKO ARRAGUA ..... 3
AZALA KREAZIO ESPAZIOA ..... 5
AZKUNA ZENTROA – BILBOKO ALONDEGIA ..... 7
BARATZA ARETOA ..... 8
BILBAO ESZENA ..... 9
BILBAO ARTE ..... 10
BITAMINE FAKTORIA ..... 12
BUENAWISTA PROLLECKZIOM'S ..... 14
CONEXIONES IMPROBABLES ..... 16
DANTZAGUNEA ..... 17
ESPACIO OPEN ..... 19
GARAION SORGINGUNEA ..... 21
HARROBIA ..... 22
HISTERIA KOLEKTIBOA ..... 23
KUNARTE ..... 25
KUTXA KULTUR ..... 26
LA FUNDICIÓN ..... 27
TABAKALERA ..... 28
WIKITOKI ..... 30
ZAWP (ZORROTZAURE ART WORK IN PROGRESS) ..... 32
ZIRKOZAURRE ..... 34

«Sorkuntza sostengatzeko sistema baterantz Euskadin» azterlanaren parte gisa, eranskin bat egin da, eta bertan aurkezten dira, azterlan bereko zerrenda arrazoituan baino xehetasun handiagoz, 1. tipologiako eragileak: Sorkuntzari zuzeneko sostengu estrukturala emateko eragileak.

Eragile horiek dira ekosistemaren barruan funtzio estrukturalena betetzen dutenak. Ezaugarri hauek dituzte: azpiegitura eta/edo egitura irisgarriak eta irekiak izatea, baliabide ukigarriak zein ukiezinak eta hainbat zerbitzu eskaintzea, intentsitate-maila desberdinetako eskaintzak egitea modu iraunkor eta egonkorrean, eta sorkuntza sostengatzeko tokiko eta/edo nazioarteko sareekin lotuta aritzea. Gainera, askotan, finantzaketarekin, laguntzarekin, kudeaketan trebatzearekin, bistaratzearekin edo sustapenarekin zerikusia duten zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Fitxetan, eragile bakoitzaren alderdi orokorrak eta deskribatzaileak jasotzen dira; eskaintzen dituen azpiegitura eta baliabide materaial eta immaterialei buruzko informazioa, eta garatzen dituen zerbitzu eta programei buruzkoa; baita analisirako beste alderdi batzuk ere: irekitasuna eta irisgarritasun publikoa, eskaintzen egituratze maila, espezializazioa vs zeharkakotasuna edo sarea eta trakzio-ahalmena.

Eduki guztiak proposatu dira kontrasterako hemen jasotako eragileen aldetik.

Argazkiak, kasu gehienetan, erakundearen webgunetik hartu dira.



# ARROPAINEKO ARRAGUA

**Hemendik jarduten du:** Iñigo Artieta Etorbidea, 5. 48280 Lekeitio
**Lurraldea:** Bizkaia
**Webgunea:** http://arragua.org
**Harremana:** info@arragua.org
**Tipologia:** Pribatua
**Erakundeen babesa:** Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Aldundia
**Arreta-sektorea:** sorkuntza-praktikak eta praktika pedagogikoak (zeharkakoa)

Arragua proiektuak inplementatzen dituen programetatik garatzen du bere jarduera; programa horiek oinarrizko bi esparruren «arteko» espazio bat sortzeko asmoa dute: sorkuntza-praktikak eta pedagogia-praktikak, espazio hori «ezagutza kokatuaren» noziotik ulertuta (D. Haraway). Jarduera horiek aplikatzeko lehentasunezko esparru geografikoa Lea-Artibai eskualdea da (Bizkaia). Lehentasun horrek, batez ere, «hiriko politikekiko» desadostasuna adierazten du, topikoari jarraikiz, XIX. mendeko garapen industrialetik jarauntsitako «hiria-landa» diferentzietan sakontzen baitute. Gizarte garaikideetan, ordea, eta teknologia berriak abian daudela, gaur egun «urbanismo orokortu» batetik soilik pentsa litezke kategoria horiek. (Iturria: Arropaineko Arragua).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA<br>KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA<br>PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA<br>POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

**Azpiegiturak**

- 220 m2ko espazio irekia beheko solairuan.
- Bulego-aldea.
- Atseden-gunea / logela.
- Jarduera eremua.
- Komunak / dutxa / sukaldea.
- Lorategi erako kanpoaldea.

**Baliabide immaterialak**

- Itzulketa publikoa: lanak jendaurrean aurkezteko konpromisoa.
- Arraguaren harreman-sarea instituzio eta erakunde publiko eta pribatuekin.
- Ainara Legardonen aholkularitza-zerbitzua jabetza intelektualari buruz.
- Egoitza aplikatuek zuzkidura ekonomikoa dute.

**Baliabide materialak**

- 70 m2 inguruko oholtza.
- Mahaiak (gutxi gorabeherako edukiera 20-30 pertsona).
- Eserlekuak / bankuak (gutxi gorabeherako edukiera 60-70 pertsona).
- Interneteko konexioa.
- Ikus-entzunezko materiala (proiektagailuak, pantailak...).
- Audio eta soinu ekipoa (anplifikadorea, bozgorailuak...).
- Ekipo informatikoa
- Berokuntza (pellet-berogailua)
- Chill out eremua: hozkailua, mikrouhin labea, kafe-makina, etab.
- Karpa.
- Udal baliabideetarako sarbidea, udalarekiko aldez aurreko itun bati esker.

**Zerbitzuak eta programak**

Egoitzen programa. Deialdi jarraitua eta irekia, bi erlazio modu izan ditzakeena:

1. **Arragua egoitza:** kanpoko sorkuntza-proiektuei zuzendua: tokia lagatzea + baliabideen erabilpena + ostatua / uztailetik irailera.
2. **Egoitza aplikatua:** beren garapena testuinguru pedagogiko batean gauzatzetik (edo garapen horretan interesaturik) abiatzen diren eta tokiko testuinguruan –«Espazioa eta gauzak» programaren barruan– aplikatu ahalko diren sorkuntza proiektuei zuzendua: espazioaren, baliabideen eta lan-egituraren erabilpena eta aplikazioa + ostatua + ordainsaria / irailetik maiatzera.

Arraguan garatutako gainerako programak lan horien, tokiko testuinguruaren eta sorkuntza-esparruaren arteko konexioak elikatzen eta eratzen saiatzen dira.

Izaera esperimentala eta kontzeptualizazio prozesuak gehiago jasota daude beste programa hauetan: Espazioa eta Gauzak / Phyo / ezbai / erabilera.

# ARROPAINEKO ARRAGUA

## ANALISI-ALDERDIAK

**Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | **X** | |

- Programek honela arautzen dute irispide publikoa: deialdi ireki eta jarraituen bitartez, abian diren programen garapenera egokituta.

**Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | **X** | |

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria (sorkuntzaren sostengua, proiektu propioak).
- Programazioa tokiko testuinguruaren egoerari buruzko aldez aurreko azterketan oinarri hartuta ere eraikitzen da.

**Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | **X** |

- Diziplinak ez daude halakotzat artikulatuta Arraguako proposamen eta programetan. Interesa sormen-praktiketan datza.
- Zeharkakotasuna diziplina-mailan.
- Arreta garrantzitsua artea/sorkuntza-hezkuntza/pedagogia erlazioa bultzatzeari.

**Sarea eta trakzio-ahalmena**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | **X** | | | |

- Hitzarmena eta lan-ildo iraunkorrak Birminghameko BE FESTIVAL jaialdiarekin eta Berlingo ArtHaus-ekin (lispa).



# AZALA KREAZIO ESPAZIOA

**OHemendik jarduten du:** Lasierra, 15. Lasierra 01428 (Ribera Alta) Álava
**Lurraldea:** Araba
**Webgunea:** www.azala.es
**Harremana:** azala@azala.es
**Tipologia:** Privado
**Erakundeen babesa:** Eusko Jaurlaritza; Landa Garapeneko Europako Nekazarien Funtsa; LEADER; INAEM; Iberescena
**Arreta-sektorea:** Eszenikoak eta zuzenekoak; zeharkakoa

AZALA bi buruko proiektu bat da; proiektu kulturala eta turismoari ostatu emateko proiektu bat konbinatzen ditu. Bere definizioaren jatorrian, sormenerako espazio bat. AZALA egonaldi artistikoetarako gune bat eta artisten arteko topaketarako leku bat da. Ikerketa, gogoeta eta sorkuntza dira proiektu honen oinarrizko adierazleak. Euskal Herriko arte eszeniko eta performatiboen lurraldean kokaturik, bere burua behin eta berriro 'deslurraldetzen' ahalegintzen da. (Iturria: Azala Kreazio Espazioa).

## BALIO-KATEA

- ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA
- PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA
- PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

**Azpiegiturak**

- Ostatua (5 etxe).
- Sukalde-txoko ekipatua.
- Lanerako aretoa eta bulegoa.
- Aldagelak, lorategia.
- Komunak / dutxa / sukaldea.
- Lorategi erako kanpoaldea.

**Baliabide immaterialak**

Bultzada dantza-eskola erlazioari eta publikoen sentsibilizazioari.

**Baliabide materialak**

Oinarrizko material teknikoa: soinua, linolioa, erreprodukzio tresneriak (CD/DVD), kamera.

**Zerbitzuak eta programak**

**Egonaldi artistikoak (sorkuntza eta ikerketa):** lagapenen bitartez, aurkezpen publiko bat egiteko baldintzarekin (Ate irekiak), artista egoiliarren arteko elkarrizketa sustatzea, tokiko eszenarekiko harremana, etab.

**Lantegiak:** artista gonbidatu batek emandako tailer intentsiboak, haren kezketatik abiatuta.

**Laborategiak:** hitzorduak artisten, ikertzaileen eta pentsalarien artean. Ikerketa kolektiboan oinarritutako prozesu teoriko-praktikoak.

**Mintegiak:** topaketa espezializatuak.

**Proiektuak lankidetzan eta norberarenak:** Proklama, Tapete Común…

## ANALISI-ALDERDIAK

**Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)**

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egonaldiak aldi baterako lagapenen eta lagapen iraunkorren bitartez.
- Deialdi ireki iraunkorra (egoitzak, mintegiak, etab.)
- Materiala lagatzen da espazioaren barruan eta kanpoan erabiltzeko.

**Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)**

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria (sorkuntzaren sostengua, proiektu propioak).

**Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)**

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Lehentasunezko esparrua zuzeneko arteak dituen arren, beste arte- eta sormen-eremu batzuetara ere hedatzen du jarduera.

**Sarea eta trakzio-ahalmena**

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Honako hauen parte da: Karraskan, Cubo Verde, Artea-Gaztela-Mantxako Unibertsitatea.
- Artista eta sortzaileen sare garrantzitsua, hala nazio nola nazioarte mailan.



# AZKUNA ZENTROA – BILBOKO ALONDEGIA GIZARTE ETA KULTURA GARAIKIDEKO ZENTROA

**Hemendik jarduten du:** Plaza Arriquibar, 4. 48019 Bilbao
**Lurraldea:** Bizkaia
**Webgunea:** https://www.azkunazentroa.eus/
**Harremanetarako:** Fernado Perez, zuzendaria.  direccion@azkunazentroa.eus
**Tipologia:** Publikoa (Sustatzailea: Bilboko Udala)
**Patroi edo ugazaba estrategikoa:** BBK
**Elkartekideak:** Bizkaia BEAZ; Sabadell Fundazioa.
**Lankideak:** EDP; Urbegi Taldea; San Miguel; Laboral Kutxa; Obra Social La Caixa, Etxepare Institutua, Ikea, Frantses Institutua.
**Arreta-sektorea:** Arte garaikidea, zuzeneko arteak, kultura digitala, literatura, zinema eta ikus-entzunekoak, gizartea.

Azkuna Zentroa Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroa da, tokiko eta nazioarteko begirada du eta ikus-entzule komunitate desberdinekiko elkarrizketara irekita dago. Kultura praktika gisa bizitzeko tokia da, prozesu gisa, esperientzietarako espazio modura. Pertsona, artista, eragile eta erkidego artistikoekin lan egiten dute, eta programazio eredu hibrido eta alde anitzekoekin, arte garaikidearen egunerokotasuna mesedetu eta ikus-entzule komunitate guztietara iristeko. Arreta berezia jartzen diote egungo euskarazko sorkuntzari eta artearen ikuspegi feministei, eta bitartekaritza eta hezkuntza proposatzen dituzte ezagutza kritikoa sortzeko eta, artearen eta artisten bitartez, gizartea eraldatzeko. Tokiko sorkuntza garaikidea bistaratzeko ekimenak bultzatzen ditu, hala nola Bideotik edo Prototipoak. (Iturria: Azkuna Zentroa).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

Espazioak Zentroan.

### Baliabide materialak

Ekoizpenerako eta laguntzarako baliabideak.

### Baliabide immaterialak

Nazioarteko eta tokiko mugikortasuna.

### Zerbitzuak eta programak

Amphitryon, egoitza artistikoen programa, zuzeneko arteen eta erakusten direnen inguruan (baldintza materialak eta espazio arlokoak eskaintzen dizkie sortzaileei). Modalitateak:

1. Dantza garaikidea: Rotterdameko (Herbehereak) Dansateliers dantza-sorkuntza eta -erakusketako Zentroarekin lankidetzan eramaten da aurrera. Egoitza hori dantzako profesionalei eskainita dago eta bi etapatan garatzen da. Lehena, Azkuna Zentroan, non pieza koreografiko baten ikerketa- eta sorkuntza-prozesuan lan egingo baita. Bigarrena, Rotterdamen, non egoiliarrak Dansatelierseko lantaldearen aholkularitza eta mentoring artistikoa izango baititu bere lana garatzeko orduan. Rotterdameko Dansateliersek, bere aldetik,Herbeheretako testuinguruarekin lotura duen koreografo bat hautatuko du, antzeko ibilbidea egin dezan, esandako deialdian hautatutako egoiliarrarekin elkarrizketatzearen bidez.
2. Praktika artistikoak: Kuba eta Euskal Herriko artisten arteko trukeak sustatzen ditu, bi espazioetan ikerketa-aldi batzuk antolatuta; hartara, mesede egiten zaio testuinguru artistiko desberdinetan ikertzea eta lan egiteari. Egonaldi hori programa honekin elkarlanean egiten da: Habanan Carlos Garaicoa Estudioak aurrera daraman Artista x Artista programarekin.
3. Hotsetan: musika esperimentala eta soinu-artea (zentroan programatuta dauden eta beren lan-prozesuan denbora gehiago behar duten artisten gonbidapen bitartez.).
4. Kolektibo egoiliarra – Hurbileko kolektiboei zuzendutako gonbidapen bidez (bi urte).
5. Artista elkartekideak: sorkuntza artistikoa sostengatzeko programa bat, sustapenaren eta sortzaileei lagun egitearen bitartez, hala hasiberriei nola ibilbide finkatua dutenei, haien lanak lengoaia artistikoei buruzko begirada inspiratzaileak baitira.
6. Lankidetza-marko berri bat, zentroaren programazio-ildoekin bat datorrena, zeinak indartu egiten baitu kultura garaikidera heltzeko eta sorkuntza-prozesuak sostengatzeko plataforma izaera. Gonbidapen bidez eta bi urtez.

Mugikortasuna: bultzatzen diren egoitza edo egonaldi programen bitartez.

# AZKUNA ZENTROA – BILBOKO ALONDEGIA GIZARTE ETA KULTURA GARAIKIDEKO ZENTROA

## ANALISI-ALDERDIAK

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | **3** | | |

- Egonaldi artisikoetarako deialdi bana, urtero, modalitate bakoitzean.
- Eremuak programa ari da gauzatzen Alondegiko instalazioetan (txosten hau egiteko momentuan).

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | **4** | |

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria.

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | **5** |

- Zeharkakotasuna diziplina-mailan.
- Espezializazioa egoitzen deialdian: musika, arte plastikoak eta bisualak eta dantza.

### Sarea eta trakzio-ahalmena

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | **5** |

- Artisten nazioko eta nazioarteko mugikortasunerako sarea.
  - Dansateliers (Roterdam);
  - Carlos Garaicoa estudioa (Habana).
  - Creadis 3 – Eskualdearteko lankidetza-proiektua berrikuntza-politiken hobekuntzarako.
  - Smartplaces - Europako 7 zentro - Europako Batzordea Europa Creativa programaren bidez. - Iraupena: 4 urte (2016ko ekaina – 2020eko ekaina).
- Smartplace zentroak: Dortmund U, Dortmund (Alemania);ETOPIA Arte eta Teknologia Zentroa, Zaragoza, ZKM (Zentrum für Kunst und Medientechnologie), Karlsruhe (Alemania), WIELS Centre d'Art Contemporain, Brusela (Belgika), Eindhoveneko Van Abbemuseum (Herbehereak), Pikardiako Museoa, Amiens (Frantzia), Birmingham City Unibertsitatea (Erresuma Batua), Ouluko Zientzia Aplikatuen Unibertsitatea (Finlandia), Liechtensteingo Museo Nazionala (Liechtenstein).



# BARATZA ARETOA

**Hemendik jarduten du:** Aldabe Plazatxoa, 4, 01012 Vitoria-Gasteiz
**Lurraldea:** Araba
**Webgunea:** salabaratza.com
**Harremana:** info@salabaratza.com
**Tipologia:** Pribatua
**Erakundeen babesa:** Eusko Jaurlaritza eta Vitoria-Gasteizko Udala
**Arreta-sektorea:** Arte eszenikoak eta zuzenekoak

Baratza Aretoa arte eszeniko garaikideetarako zentro independente bat da eta Vitoria-Gasteizen dago. 2013ko abendutik, zenbait jarduera hartzen ditu, azaleratzen ari den kultura-sorkuntzari mesede egiten diotenak diziplina eszeniko batzuetan, barnean hartuta sorkuntza, zabalkundea, erakusketa eta prestakuntza. Baratzako lantaldearen asmoa, sortu zenetik, tokiko eszenaren alde egitea da, lengoaia berriak herritarrei hurbiltzea, sortzaile berriak prestatzea eta, hitz batean esanda, kultura sortzea eremu guztietan. Horretarako, Baratzak egonaldiak, eskolak eta programazio eszenikoa eskaintzen ditu. Geure jardueraz gainera –horretarako, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren sostengua dugu–, aretoa alokatu egiten da eskolak, zikloak eta beste jarduera batzuk antolatzeko. (Iturria: Sala Baratza).

## BALIO-KATEA

- ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA
- PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA
- PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

Kuia aretoa (90 m2): Parasite Kolektiboaren Laborategi Eszenikoa, deialdi publiko bidezko sorkuntzarako egonaldiak, prestakuntzak eta programazioa.

Kuiatxo aretoa: espazio handirik behar ez duten prestakuntza eta egonaldiak hartzen ditu.

Sarrera: oholtza txiki bat du eta soinu eta argien ekipoa muntatu daiteke ekitaldietarako; hor gauzatzen da ATARI ekitaldia (lan labur, erakusketa eta prozesuetarako) eta bilerak egiten dira. Barra-zerbitzua du programazioa abian dagoenean.

### Baliabide materialak

Kuia aretoa: harmaila mugikorrak ditu, eta beste hainbat hornidura: soinu-ekipoa, argi-tresneria osoa, bideoa (proiektagailua eta pantaila), oihalak eta linolioa, etab.

Kuiatxo aretoa: fokuak jartzeko trusta du, eta soinu-mahai propioa.

### Zerbitzuak eta programak

Egonaldi-programa, lau modalitatetan zatitzen dena:

1. gonbidapen bidez
2. deialdi publiko bidez: urteroko deialdia, diruz lagundutako egonaldiak eskaintzeko prozesuan dauden proiektuetarako.
3. lankidetza bidez: hiriko beste programa batzuekiko itunak, egonaldiak eskaintzen dizkie Zurrunbilo Jaialdiarekin, Scratxe Gauarekin edo beste programa batzuekin lotura duten konpainiei.
4. lagapen bidez: entseguak egiteko lekua behar duten tokiko sortzaileei zuzendua, jardueraren batean laguntzearen ordainetan.

### Baliabide immaterialak

Ticketing zerbitzua CRMrekin.

## ANALISI-ALDERDIAK

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

1 | 2 | 3 | **4** | 5

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria: programazio propioa, prestakuntza eta egoitzak.

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

1 | 2 | 3 | **4** | 5

- Dituen egoitza edo egonaldi modalitate desberdinen arabera (urteroko) deialdi bidez iritsi daiteke bere espaziora, edota modu jarraituan eta irekian lagatzen dira espazioak.

### Sarea eta trakzio-ahalmena

**1** | 2 | 3 | 4 | 5

- Karraskan, ADDErekin lankidetzan aritzen da, noizik behin.

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

1 | **2** | 3 | 4 | 5

- Hauek ditu arretagai nagusi: antzerki fisikoa, dantza garaikidea, eta arte eszeniko garaikide hibridoagoak (musikarekin, performanceak, etab.).



# BILBAO ESZENA

**Hemendik jarduten du:** Juan Gardeazabal kalea 3. 48004 Bilbo
**Lurraldea:** Bizkaia
**Webgunea:** www.bilbao.eus
**Harremana:** bilbaoeszena@bilbao.eus
**Tipologia:** Publikoa (Sustatzailea: Bilboko Udala)
**Arreta-sektorea:** Eszenikoak eta zuzenekoak.

Bilbao Eszena izeneko antzerki-baliabideen zentroa Santutxu auzoan inauguratu zen 2004ko martxoaren 27an. Bilbao Eszenako lokaletan, entsegu eta bileretarako salak dituzte, arte eszenikoekin erlazioa duten pertsona, talde eta elkarteek beren jarduera gara dezaten. Zentroaren helburuak, hasieratik, antzerki amateur eta erdi-profesionalaren lana sostengatzea eta zabaltzea dira. Bilbao Eszenatik hiriko antzerki- eta dantza-eszena osatzen duten taldeen emankizunak ere sustatzen eta antolatzen dira, Zirkuitoa programa bezalako jardueren bitartez, hor aurkezten baitituzte beren lanak talde horiek, Barrutiko Udal Zentroetan.
(Iturria: Bilbao Eszena).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| **PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA** |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

Entseguetarako lokalak: bi areto ditu, eta bitartekari lanak egiten ditu entsegu-tokiak erreserbatzeko udal zentroetan eta ikastetxe publikoetan,

Arte eszenikoei buruzko dokumentazio-zentroa.

Lanerako eta bileretarako salak.

### Baliabide immaterialak

Oinarrizko aholkularitza konpainia amateur eta erdi profesionalentzat.

### Baliabide materialak

Baliabide materialak: argiteria, soinua, oihalak, proiektagailua, pantailak, ikus-entzunezkoa.

Ikuskizunen sustapenerako laguntza: kartelak eta fotokopiak.

### Zerbitzuak eta programak

**Prestakuntza eta trebakuntza:** teknika eta ezagutza eszenikoak.

**Egoitzak:** «Artistak egoitzan» programa bultzatzen dute, euskal artista eta konpainiei zuzendutako urteroko deialdia, hiru proiektu garatzeko. 4.000 euroko dirulaguntza du, asistentzia artistikoa eta teknikoa barne direla.

## ANALISI-ALDERDIAK

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
|---|---|---|---|---|

- Entseguetarako aretoak doan, aurrez eskatuz gero.

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria.

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Arte eszenikoetako azpisektoreak eta kideko sektoreak

### Sarea eta trakzio-ahalmena

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Etengabeko harremanetan sektoreko elkarte guztiekin, profesionalekin eta beste instituzio batzuekin.



# BILBAO ARTE

**Hemendik jarduten du:** Urazurrutia Kalea, 32. 48003 Bilbao
**Lurraldea:** Bizkaia
**Webgunea:** https://bilbaoarte.org/
**Harremana:** bilbaoarte@bilbao.eus
**Tipologia:** Publikoa (Sustatzailea: Bilboko Udala)
**Sostenguak:** BBK
**Erakunde laguntzaileak:** Institut Français, Koreako Zentro Kulturala, UPV/EHU, Seul museum of Arta, ZineGoak, Portugalgo Enbaxada, Instituto Camoes, Territorios y Fronteras, BAD, KUB, Cité International des Arts
**Arreta-sektorea:** Arte plastikoak; arte bisualak; new media art

Ekoizpen artistikorako zentroa, Bilboko Udaleko Kultura Sailaren mendekoa: artista egoiliarren esku jartzen ditu haien proposamenak garatzeko behar dituzten bitartekoak eta azpiegiturak. BilbaoArteren funtsezko helburua artistei maila oneko profesionalizazioa ematea da, horretarako ekipamendu eta azpiegitura modernoak eskaintzearen bidez. 1998an ireki zenetik, honako jarduera hauetan egiten du lan:

- Proiektu artistikoak garatzeko bekak.
- Ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak, zeinetan nazioarteko ospea duten sortzaileek parte hartzen duten.
- Sortzaile gazteen erakusketak eta ate irekietako jardunaldiak.
- Artista trukeak beste zentro artistiko batzuekin, hala nazio mailan (Viana fundazioa – Cajasur, Kordoba) nola nazioarte mailan (Bregenz, Austria / Paris, Frantzia / Seul, Hego Korea).
- Erakunde-proiektuak garatzeko aholkularitza artistikoa.

(Iturria: BilbaoArte).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA<br>KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA<br>PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA<br>POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

- Eskultura eta eraikuntza tailerra.
- Serigrafia eta grabatu tailerra.
- Argitalpen, inprimaketa eta teknologia berriak.
- MediaLab tailerra.
- Filmatzeko eta argazkigintzarako platoa.
- Laborategi analogikoa.

### Baliabide materialak

- Eskultura eta eraikuntza tailerra: makineria.
- Serigrafia eta grabatu tailerra: torkuluak, prentsa, erregailua, erretxina-kutxa, prentsa, inprimaketarako mahaiak, etab.
- Edizio, inprimaketa eta teknologia berrien tailerra: programategia, tresneriak, monitorea, grabagailua, inprimagailua, formatu handiko plotterra, biniladorea, inprimaketarako bitartekoak, suntsikorrak.
- MediaLab tailerra: 3D inprimagailuak, 3D eskanerra, soldatze-estazioa, material elektronikoa.
- Filmatzeko eta argazkietarako platoa: kamerak, flashak, panelak, tarimak, ziklorama, laguntzarako materiala.

### Baliabide immaterialak

Jarduerarekin lotura duten teknologiak (Espazioak / tailerrak).

### Zerbitzuak eta programak

Finantzaketa.

1. **BilbaoArte bekak,** proiektu artistikoak garatzeko 3 modalitatetan:
    - Espazioarekin: norberaren estudioan lan egitea instalazioen barruan.
    - Espazioarekin eta egoitzarekin: norberaren estudioan lan egitea instalazioen barruan eta beka Bilboko egoitzarako.
    - Lankidetzakoa: tailerreko maisu baten laguntzaile modura.

1. **Ekoizpen artistikorako laguntzak** (Bilbao Bizkaia Kutxa –BBK– Fundazioarekin lankidetzan): hiru hilabeteko iraupeneko 24 laguntzataraino, materialetarako 1.200 eurora arteko ekarpen ekonomikoarekin.

Nazioarteko eta nazio barruko mugikortasuna arte eta kultura-zentroetako egoitza-deialdien bidez edo trukerako programen bitartez.

Laguntza: aholkularitza proiektuak garatzeko orduan.

Prestakuntza eta trebakuntza: hitzaldiak, mintegiak, ikastaroak.

# BILBAO ARTE

## ANALISI-ALDERDIAK

**Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
|---|---|---|---|---|

- Beka-deialdia urtero.
- Tailerretara sartu ahal izatea artista erabiltzaile gisa, dosierra eta garatu nahi den proiektua bidalita. Eskatutako eremuetako lantegi-maisuek proiektua onartu ostean, urtebeteko kuota ordainduko da.

**Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)**

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria (sorkuntzaren sostengua, proiektu propioak). Kanpoko proiektuek ere izan dezakete tokia noizik behin.

**Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
|---|---|---|---|---|

- Arte-adierazpen modu guztietako proiektuak garatzen dira; esan behar da proiektu horien ehuneko handi bat diziplinez gaindikoa dela.

**Sarea eta trakzio-ahalmena**

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Artista bekadunen nazioko eta nazioarteko mugikortasunerako sarea: Arteen nazioarteko hiria (Paris), Sema Nanji Residency (Seul), Bergenez (Austria)...



# BITAMINE FAKTORIA

**Hemendik jarduten du:** Iñigo de Loyola kalea, 8. 20303 Irun
**Lurraldea:** Gipuzkoa
**Web:** http://www.bitamine.net
**Webgunea:** faktoria@bitamine.net
**Harremana:** faktoria@bitamine.net
**Tipologia:** Gizarte-sektorea (Artitadetó artista-elkartea)
**Erakundeen babesa:** Eusko Jaurlaritza
**Arreta-sektorea:** Zeharkakoa

Bitamine Faktoria mugaz gaindiko sorkuntza eta ekoizpen kulturaleko fabrika bat da, eta xedetzat du kulturaren, diseinuaren eta arte garaikidearen sustapena eta nazioartekotzea, diziplina arteko proiektu berritzaile, sortzaile eta esperimentalak garatzearen bitartez. Bitamine Faktoria Artitadetó artista-elkartearen proiektua da; 2011n sortu zen, eta Irunen du egoitza. Aberastasunaren eta enpleguaren sorkuntza bultzatzen du, etorkizun irudimentsu, ekologiko eta emankorrago baterako bidea eskainiz. Guztiari aplikaturiko sormen-lantalde bat, etengabeko ikaskuntzan, esperimentazioan eta arriskuak hartzean oinarritua.
(Iturria: Bitamine Faktoria).

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

120 m2ko espazioa, banaketa irekia duena: lanerako eremua, bulegoa, bilera-gunea, tailerra, biltegia eta officea.

### Baliabide materialak

Badute materialen katalogo bat, eta eskatzen duten artisten esku jartzen dute, proiektuak gara ditzaten, bai urteroko deialdi eta programen markoan, bai mailegu-erregimenean ere (merke). katalogorako sarbidea.

### Baliabide immaterialak

Fokua nazioartekotzean eta mugikortasunean.

### Zerbitzuak eta programak

**Euskal arte garaikidea nazioartekotzeko programa:** ikerketa eta ekoizpen artistikoa suspertu nahi ditu, sortzaileak sustatzen lagundu nahi luke eta artisten nazioarteko mugikortasuna bultzatu. Urteroko deialdia.

**Mugaz gaindiko laguntzak sorkuntzarako:** obren ekoizpena arte bisualetan, ikus-entzunezkoetan, musikan, arte eszenikoetan, literaturan, diseinuan, komikian edo beste edozein sormen-diziplinatan. Kultur proiektuen ekintzailetza: ekitaldien edo espazio kulturalen kudeaketa. Obraren erakusketa. Urteroko deialdia 3.000 euroko aurrekontuarekin. Diru hori 3 proiekturen artean banatu beharko da, gehienera.

**Artisten nazioarteko egoitza:** Espainian bizi ez diren edozein nazionalitatetako artistei zuzendutako deialdia, Bidasoko Eskualdean 40 eguneko egonaldia egin nahi baldin badute. Laguntza: lagun egitea, zabalkundea, 600 euro joan-etorrietarako, 800 euro barne-mugikortasunerako eta 400 euro ekoizpen-gastuetarako.

**HAU, Euskal Herriko objektu tradizionalaren diseinu lehiaketa.** Nazioarteko lehiaketa horretan, euskal objektu tradizional baten berrinterpretazioa eskatzen da, diseinu industrialaren ikuspegitik.

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA<br>KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA<br>PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA<br>POSTPRODUKZIOA |

# BITAMINE FAKTORIA

## ANALISI-ALDERDIAK

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | **X** | | |

- Baliabideetarako irispide irekia dute urteroko deialdi eta programen markoan hautatutako pertsonek. Gainera, posible da Bitamine Faktoriarekin lankidetzan aritzea, proiektu puntualetan.

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | **X** | |

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria.

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | **X** |

- Bitamine Faktoriak edozein diziplinatako arte garaikideko proiektuak eta ekimenak sostengatzen ditu, baita diseinu eta kultura garaikide orokorreko ekimenak ere.

### Sarea eta trakzio-ahalmena

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | **X** | |

- Hauen partaide da: Mugakide (mugaz gaindiko lankidetza sarea, Nekatoenearekin batera sortua) eta Trans Europe Halles (artista eta herritarrek bultzatutako kultura-zentroen europar sarea). Euskal arte garaikidea Argentinan eta Brasilen nazioartekotzeko programak Eusko Jaurlaritzak Argentina - Mercosurren duen Ordezkaritzaren sostengua du.
- HAU diseinu lehiaketak, Bitaminek asmatua, honako hauen sostengua eta lankidetza du: San Telmo Museoa, Mondragon Unibertsitatea, Aranzadi Zientzia Elkartea eta Ramírez i Carrillo estudio.




# BUENAWISTA PROLLECKZIOM'S

**Hemendik jarduten du:** Egia Kultur Zentroa, Baztan kalea 21- 20012 Donostia
**Lurraldea:** Gipuzkoa
**Webgunea:** www.buenawista.org, www.katapulta.org
**Harremana:** info@buenawista.org, info@katapulta.org
**Tipologia:** Gizarte-sektorea (Buenawista Prolleckziom's Kultur Elkartea)
**Erakundeen babesa:** GFA, Donostiako Udala, Eusko Jaurlaritza (Arragoa 2013)
**Arreta-sektorea:** Sormen-diziplina oro, tokiko eremu profesional emergentean edo erdi-profesionalean

Buenawista Prolleckziom's irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da eta profil profesional guztiz desberdinetako musikariek osatzen dute; horri esker beren inguruneko kultura- eta sormen-panoramaren ikuspegi zabala dute eta ongi ezagutzen dituzte sortzaileek beren ekimenak gauzatzeko orduan izaten dituzten zailtasunak. 2005etik hona, Musikagela entseguetarako lokalen udal zerbitzua diseinatzen eta kudeatzen du, Egia Kultur Etxean, eta, 2015etik Intxaurrondoko KEn ere bai. 2013an, «Katapulta» plataforma atera zuen jendaurrera, talentu sortzaileen bilaketa, garapen eta sustapenerako plataforma bat, hainbat diziplinatako eragileen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko konexioan oinarritua, gure inguruneko sormen-potentziala ahalik eta gehien garatzea ahalbidetu zezan. Mota guztietako sormen-diziplinak hartzen ditu barruan, baita sorkuntzaren garapenerako beharrezkoak diren jarduera osagarriak ere, eta, sortzaileen artean ez ezik, sortzaile horien eta beste profil profesional batzuen, teknikarien eta beste baliabideen arteko harremanak ere sustatzen ditu. (Iturria: Buenawista Prolleckziom's).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA<br>KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA<br>PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA<br>POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

Musikagela: Entsegurako 13 sala eta biltegia ditu.

### Baliabide materialak

Musikagela: audioko grabazio-materiala eta tresneria mugikorra mailegatzeko zerbitzua..

### Baliabide immaterialak

Fokua nazioartekotzean eta mugikortasunean.

### Zerbitzuak eta programak

Katapulta Programa kudeatzen du, zeinak hurrengo egintza hauek baititu barnean:

1. Katapulta, sortzaileen diziplina arteko erakustaldia: asteburuko urteroko ekitaldia, non arte plastiko, eszeniko, ilustrazio, animazio, zinema, musika, eta abarretako 20 artista ingururen obra aurkezten den. Artistek, kasuen arabera, zuzenean antzezteaz, erakusteaz, edo ekoizteaz gainera, beren prozesuak azaltzeko aukera dute.
2. Katapulta Action: noizbehinkako ekitaldiak, non artista baten edo gehiagoren obra aurkezten den, erakusketa, hitzaldi, emanaldi edo beste formatu batean. Berariazko sostengua ematen zaie artistei, beren premia eta egoeraren arabera.
3. Katapulta Tour Gipuzkoa: GFAk eta Kutxa Kultur-ek sustatutako zirkuitua, Buenawista eta Donostia Kulturarekin lankidetzan. Gipuzkoako musikako eta formatu txikiko arte eszenikoetako 12 artista hautatzen dira 3 emanaldi eskain ditzaten, gutxienez, Gipuzkoako agertoki edo jaialdietan. Aipatutako artista horiei bideo-elkarrizketa bat grabatzen zaie. Zirkuituak, gainera, Heineken Jazzaldian tokiko artistek eskaintzen dituzten joaldiak babesten ditu.

Donostia Kulturak bultzatutako Musikagela zerbitzua kudeatzen du, zeina Egia eta Intxaurrondoko kultura-etxeetan kokatzen baita. Zerbitzuaren xedea hiriko musika-jarduera sustatzea eta dinamizatzea da. Entseguetarako lokalak ditu, materiala lagatzen du eta prestakuntza-programak eta kontzertuak eskaintzen ditu hiriko hainbat tokitan.

# BUENAWISTA PROLLECKZIOM'S

## ANALISI-ALDERDIAK

**Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

Selected: **5**

- Musikagela: Betebehar bakarra da proiektuko kideen erdiak, gutxienez, Donostian erroldatuta egon behar dutela. Entsegu-lokaletarako sarbidea publikoa eta iraunkorra da. Kontzertuetako parte-hartzaileak kalitatearen arabera hautatzen dira, etengabeko miaketan.
- Katapulta: Katapulta Tour Gipuzkoak deialdi bat egiten du urtero hautaketa-prozesu baterako. Beharrezkoa da proiektuko kide bat, gutxienez, Gipuzkoan erroldatuta egotea. Gainerako jardueretan (Katapulta Erakusketa eta Katapulta Action) programaren onuradunak beren kalitatearen arabera hautatzen dira, haien aztarrenak etengabe arakatzen baitira Euskadi mailan.

**Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

Selected: **4**

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria

**Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

Selected: **2**

- Musika sektoreak du lehentasuna, nahiz eta beste diziplina batzuren Katapulta ere bada, hala nola ikusmen-arteena eta plastikoena edo eszenikoena eta zuzenekoena.

**Sarea eta trakzio-ahalmena**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

Selected: **2**

- Karraskan.



# CONEXIONES IMPROBABLES

**Hemendik jarduten du:** Osasun Iturri kalea 9, behealdea - 01003, Vitoria-Gasteiz
**Lurraldea:** Araba
**Webgunea:** http://conexionesimprobables.es
**Harremana:** info@conexionesimprobables.com
**Tipologia:** Pribatua
**Erakundeen babesa:** Eusko Jaurlaritza, Europar Batasuna
**Arreta-sektorea:** Zeharkakoa

Conexiones Improbables plataforma artean eta kulturan oinarritzen da, eta berrikuntza ireki eta elkarlaneko proiektuak sustatzen eta garatzen ditu. Hibridazio-metodologia erabiltzen du horretarako, enpresa edo erakundeen beharrak eta erronkak artista edo sortzaileen sormen eta jakintzarekin elkartzen dituela, azken horiek hartuta sistema konplexuen ikertzaile, katalizatzaile-sortzaile, muturreko erabiltzaile eta analistatzat. Inpaktuekiko arduraz jokatzen duen berrikuntza sustatzen du, jasangarria, konprometitua, errotua eta erradikala. 2009ko urritik ari da lanean: zenbait sektoretako (industria, merkataritza, hezkuntza, osasuna, etab.) enpresak eta erakundeak elkartu ditu diziplina desberdinetako artista, sortzaile eta pentsalariekin. Artisten prestakuntzarako programak garatzen ditu, testuinguru ez-artistikoetan esku har ditzaten, eta ekintzaile sortzaileen arteko trukeak sustatzen ditu Erasmus for Young Enterpreuners programaren bitartez. (Iturria: Conexiones Improbables).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Zerbitzuak eta programak

**Relaciones improbables**: berrikuntza ireki eta elkarlaneko prozesuak, enpresa edo erakundeetako lantaldeak proiektu edo erronka jakin batzuetarako hautatu diren artista eta/edo sortzaileekin batera lanean jartzen dituztenak. Hibridazio-prozesu horiek iraupen desberdina izango dute, erakundeak garatuko duen proiektu motaren arabera; kontuan hartu beharko dira, era berean, zer premia dituen eta zer dedikazio eskainiko ahalko zaion proiektuari. Elkar-ikerketako programen 3 tipologia daude:

1. Harreman luzeak: Berrikuntza prozesu sakonak, 6 hilabetetik urtebete arteko iraupenekoak. Formatu honetan, metodologiako saio 1 edo 2 egitea aurreikusten da; kontrasteko OpenLab bat egin ohi da, askotariko publikoarekin; eta emaitzak aurkezteko beste jardunaldi bat. Artistak erakundearekin lan egiten du, *in situ*, zehaztu gabeko hainbat saiotan, 4 eta 9 hilabete artean. Gainerako lankidetza on-line egiten da.
2. Pilula sortzaileak: hibridazio-prozesu laburrak, inpaktu sortzaile bat eragiten dutenak; lagungarri dira, besteak beste, estrategiak, prozesuak, produktuak, harremanak edo negozio ereduak birpentsatzeko eta birbideratzeko. Erakundearen eta artistaren arteko lankidetza 1,5 eta 3 hilabete artekoa da; denbora horretan, gutxienez, 2-4 jardunalditan artistak fisikoki egon beharko du enpresan.
3. AuzoLab: beren praktikak birpentsatzera eta taldean jarduteko bestelako modu batzuk imajinatzera biltzen den pertsona talde bati aplikatzen zaio. Erakunde berberari lotuak egon ala ez, adimenak eta ahaleginak batzeko borondateak biltzen ditu, identifikatu dituzten premietarako erantzunen bilaketan. Horretarako, profil «inprobableko» profesionalen laguntza izango dute, hau da, kasu gehienetan, artistak edo sortzaileak baina, beste batzuetan, lan egingo den taldearekiko oso bestelako profilak dituztenak.

**Workshop:** iraupen laburreko lan-formatu intentsiboa, lagungarria ikerketa esperimentaleko eta elkar-sorkuntzako prozesuak bultzatzeko. Honako hauek bildu ohi dituzte artistak:

1. Cookreativa: Sukaldea, arteak eta sormena batzen dituen esperimentazio eta parte-hartze aktiboko workshopa.
2. OpenLab gertagaitzak: laborategi Irekia da, eta enpresa batek garatutako edo garatzen diharduen proiektu bat bere publiko objektiboarekin kontrastatzen du, oinarri artistikoa duen metodologia erabilita.
3. Hitzordu gertagaitzak: aldi motzean sareak eta harremanak sortzeko dinamika egituratua da.

**Prestakuntza artista eta sortzaileentzat:** artistei eta arte-prestakuntzako zentroei edo sormen-sektoreak bultzatzen dituztenei entrenamendua eskaintzen zaie, zeinak lanerako aukeren abanikoa –beren ohiko testuingurutik kanpo– zabaltzea ahalbidetzen baitie sortzaileei. Prestakuntza horren bidez gaitasuna ematen zaie orain arte nekez parte-hartzen zuten eta gora datozen eremuetan esku har dezaten. Prestakuntzak gai hauen inguruan ematen dira: berrikuntzarako esku-hartze artistikoa, arte/zientzia/teknologiaren arteko hibridazioa eta artea eta herritartasuneko prozesu berriak.

Prestakuntza kultura-kudeaketan, bai eta aholkularitza ere, artista eta sortzaileei beren karrera profesionala gara dezaten (berariazko prestakuntza-programak).

Egonaldiak eta trukeak Excite 2.0 Kontsortzioaren bitartez, Europako Erasmus for Young Entrepreneurs programaren barruan. Programa honek nazioz haraindiko trukeak sustatzen ditu ekintzaile hasiberrientzat eta enpresa sortzaile bat eratu nahi duten pertsonentzat (artistak, kudeatzaileak, etab.) eta parte hartzen duten beste herrialde batzuetan enpresa txikiak zuzentzen dituzten profil esperimentatuetatik ikasteko aukera ematen die.

## ANALISI-ALDERDIAK

**Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
|  | ■ |  |  |  |

**Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
|  |  |  | ■ |  |

- Eskaintza egituratua eta errepikaria.

**Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
|  |  |  |  | ■ |

**Sarea eta trakzio-ahalmena**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
|  |  |  | ■ |  |

- Karraskan, Innobasque, N.I.C.E, SEAD.



# DANTZAGUNEA

**Hemendik jarduten du:** Pelotari kalea z/g (Niessen eraikina). 20100 Errenteria
**Lurraldea:** Gipuzkoa
**Webgunea:** http://dantzagunea.gipuzkoakultura.net/
**Harremana:** dantzagunea@gipuzkoa.eus
**Tipologia:** Publikoa (foru-titulartasuna)
**Arreta-sektorea:** Dantza / mugimenduaren arteak

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen zerbitzu bat da, dantza ikasteko eta sortzeko prozesuak laguntzearren. Honako hauek dira Dantzagunearen lan-ildo nagusiak:

1. Koreografia-sorkuntza bultzatzea, sorkuntzarako egoitza-programa batean (Sortutakoak programa) eta sortzaileei eta konpainiei dantzarako espazioen lagatze jarraituan oinarrituta.
2. Sorkuntza-prozesuak sostengatzea, bai eta dantzaren eremuko sorkuntza eta ekoizpeneko hainbat alderdiren ikerketa ere.
3. Prestakuntza espezializatua, gaur egun Gipuzkoan eskaintzen den heziketaren osagarri izan dadin eta alderdi tekniko-praktikoak zein teorikoak landu ditzan.
4. Hainbat formula bilatzea dantza zabaltzeko, publikoen sentsibilizazioa areagotzeko eta hezkuntza- eta gizarte-proiektuetan dantza txertatzeko.
5. Informazio- eta dokumentazio-baliabideak erraztea interesdunei dantzarekin zerikusia duten alderdiei buruz: eskolak, bekak, entzunaldiak, konpainiak, ikuskizunen ekoizpena, ikuskizun horiek zabaltzeko kanalak…). Bulego Irekia.

Proiektua Birdiseinatze-prozesuan dago, Gipuzkoan sortzen ari den artista/erabiltzaile motaren bilakaera dela eta.
(Iturria: Dantzagunea).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA<br>KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA<br>PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA<br>POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

Dantzarako prestatutako 4 areto 240, 160, 100 eta 80 metro karratukoak.

Hiruki-aretoa bilerak egiteko, ikastaro teorikoetarako, aurkezpenetarako, etab. erabil daiteke.

Bilera-aretoa.

Administrazio-arloa, officea, aldagelak…

Sorkuntzetarako biltegia, egoitzek irauten duten bitartean.

### Baliabide materialak

Baliabide tekniko espezializatuak: barrak, linolioa.

Argazkigintza materiala, soinua eta telebista-pantaila.

### Baliabide immaterialak

Gipuzkoako artistek beren sorkuntzak garatu ahal izateko espazioen bilaketa

Sorkuntzaren eta erakusketaren arteko elkarretaratze-zubiak, espazioetan egoitza teknikoak erraztea

### Zerbitzuak eta programak

Egonaldiak:
1. **Sortutakoak:** dantzaren esparruko sorkuntza eta ikerketa proiektuak. Gipuzkoan dantza-proiektu berrien sorkuntza, garapena eta zabalkundea sustatzea bilatzen du. Gipuzkoako Dantzagunearen egoitzan egonaldi bat egitea eta proiektuaren aurkezpena hartzen ditu barnean. Laguntza: 3.000 € + 400 aholkularitzan. 2 deialdi dira urtean.
2. **Sortutakoa tradizionala:** tokiko dantzak edo birsorketak, berreraikitzeak edo sorkuntzak oinarrian dituzten proiektuak. Kontuan hartzen da ikerketa-lana; hain zuzen ere, proiektuan landutako dantzaren testuinguru-kokapenean eta dokumentazioan egindakoa. Zuzkidura: 2.000 € urtean, 2019tik aurrera, bi urtean behin.
3. **Sortutakoak soziala:** bere xedeak dira dantzaren sentsibilizazioa eta zabalkundea, sortzaileen lana gizarteratzea, eta dantzaren sentsibilizazioa sustatzea ikus-entzuleen artean. 3.500 €ko zuzkidura.
4. **Atalak**, de Dantzaz: Sorkuntza-laborategien proiektua, bi urtekoa, Euroeskualdeko bazkideek lagundua, xedetzat du dantzako profesionalei (koreografoak eta dantzariak) garapen profesional eta sortzailerako aukerak eskaintzea, egonaldi, erakustaldi, topaketa eta bitartekaritza-proposamenen bitartez.

**Prestakuntza eta trebakuntza:** espezializatua (tekniko-praktikoa eta teorikoa).

**Administrazioa eta kudeaketa:** informazio eta arreta sektoriala.

# DANTZAGUNEA

## ANALISI-ALDERDIAK

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Deialdi bidezko egonaldi artistikoak- Sortutakoak
- Espazioak lagatzea proiektuen arabera, proiektu bakoitzaren eta bere beharrizanei buruzko analisia. Arreta espezializatua eta pertsonalizatua.
- Materiala lagatzea, espazioaren barruan eta kanpoan erabiltzeko (dantzarako tapiza soilik).

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria (sorkuntzaren sostengua, proiektu propioak).

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Dantzan eta mugimendu-arteetan espezializatutako zentroa.

### Sarea eta trakzio-ahalmena

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Tokiko sarea, proiektuen arabera, hauekin erlazionatzen da: Tabakalera (Kanada, Atalak, Zinetika), Musikene (Sortutakoak Soziala I eta II, Ai Do Project-AFAGIren «Invisible Beauty»), Egia-Gazteszena KE (Jarduera paraleloak bere programazioarekin, egoitza teknikoak...), Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola (artistei aretoak lagatzea DantzaSareren barruan eta ikasleentzako tailerrak), Errenteria: Errenteriako Udal Musika eta Dantza Eskola eta Kultura Saila (entsegu-aretoa, egoitza teknikoak Niessen Entzutegian...) Dantzan Ikasi jarduerarako erabiltzen diren espazioak.
- Nazioarteko lankidetzak beste dantza-etxe batzuekin Dantzaz-en bitartez (Kanada, Frantzia).





# ESPACIO OPEN

**Hemendik jarduten du:** Deustuibarra, 70. 48014 Bilbao
**Lurraldea:** Bizkaia
**Webgunea:** https://espacioopen.com/
**Harremana:** info@espacioopen.com
**Tipologia:** Gizarte-sektorea
**Arreta-sektorea:** Maker kultura; Diseinua

Honela definitzen da Espacio Open: gizarte-inpaktu positiboko proiektu sortzaile eta sozialen ekosistema, hasieratik Bilboko galleta-fabrika zaharrean (Artiach fabrika) kokatua, Deustuibarra / Zorrotzaurre auzoan, 2009tik.

Urtean 110.000 bisitari baino gehiago, 13 langile eta 2.000 m2 instalaziotan. Kultura garaikidearen, teknologiaren eta gizarte-auzien arteko elkargunean lan egiten du. Proiektu propioak garatzen dituzte beren espazioetan, eta proiektuak eta aholkularitza- eta kudeaketa-zerbitzuak erakunde pribatu edo publikoentzat.

(Iturria: Espacio Open).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

Espacio Open-ek 4 espazio bereizi ditu:

1. Antzinako urdaiazpiko-lehortegia: 500 m2. Bulego nagusiak eta Fab Lab Bilbaoren gune zentrala, sorkuntza eta fabrikazio digitaleko zentroa.
2. Antzinako Siloa + Lorategi Sekretua: 350 m2 + 300 m2 Kafetegia eta topaketa-gunea jarduera txikietarako eta aire libreko jardueretarako.
3. Antzinako Ingeniaritza: 700 m2. Espazio balioaniztuna eta gardena proiektuetarako (egoitzak, filmaketak, prototipoak egitea, ekitaldiak, erakusketa, etab.)

### Baliabide materialak

Fabrikazio digitalerako estazio-erremintak (laser ebaketa/grabatua, 3D inprimaketa, robotika, wearableak, elektronika, craft).

Eskuzko erreminta tradizionalen estazioa (zulagailuak, elektrizitatea, bihurkinak, etab.)

Metal-tailerra (makina ebakitzailea, zerra zirkularra, disko-makinak, etab.)

Aroztegia (galleta-fabrikako auzotarrarekin hitzartuta)

Nodo Precious Plastic (plastikoa birziklatzeko proiektu globala)

### Baliabide immaterialak

Sorkuntza-ekosistemaren ikuspegi globala, nazioarteko zentro eta sareei loturik. Harreman-zirkuluak ekosistema emankorrak sendotzeko (trakzioko eta jasangarritasuneko eragile gisa ulertzen dugu gure espazioa).

Ezagutza sakona politika publikoei eta tokiko eta nazioko korporazioei buruz.

### Zerbitzuak eta programak

Espacio Openek bi jarduera-esparru nagusi ditu:

1. Turismo/Ondare industriala, tokiko garapena eta sustapen ekonomikoa.
2. KSI

3 jarduera-ildo nagusi ditugu eta beste bat osagarria:

1. **Ekitaldien antolaketa**
   - **Open Your Ganbara**, ekonomika zirkularreko merkatua, lankidetza-kontsumoa eta herritarren parte-hartzea
   - **Open Your Sormena**, arte-merkatua, diseinua eta sorkuntza. Sortzaileen plataforma, ekintzailetza sustatzea eta proiektuen inkubagailua. Zabalkundetik sorkuntzarainoko guztia lantzen dugu hemen, baina, kasu askotan, laguntza ematen eta bitartekaritzan ere bai, edo administrazioan eta kudeaketan, eta prestakuntzan eta gaikuntzan Fab Laben
   - **Beste ekitaldi batzuk**
2. **Bultzada teknologikorako proiektu estrategikoak** (Fab Lab Bilbao). Kultura digitala.
   - **Prestakuntza-programa eta tailerrak**
     - Aholkularitza eta kontsultoretza
     - Ekitaldiak eta proiektuak (Bilboko Maker Faire nazioarteko jaialdia)
     - Sorkuntzarako egoitzak
     - Fabrikazio digitala
3. **KSI** (kultura eta sormen industriak) bultzatzeko proiektu estrategikoak
   - Aholkularitza eta kontsultoretza
   - Proiektuak

# ESPACIO OPEN

## ANALISI-ALDERDIAK

**Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)**

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Espacio Openerako irispidea libre eta doan da.
- Fab Lab Bilbaorako irispidea hitzarmenen, lankidetzen, proiektu espezifikoen eta egoitzen bidezkoa da.

**Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)**

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria.

**Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)**

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Kultura garaikidearen, teknologiaren eta gizarte-auzien arteko elkargunean lan egiten du.
- Erabiltzaile edo programa mailan, honako hauei zuzenduta daude: sortzaileak (ilustrazioa, moda, zeramika, arkitektura, diseinua, zinema, etab.), industria tradizionaleko eskulangileak (arotzak, soldatzaileak, etab.), hezitzaileak (prestakuntza-zentroekin, eskolekin, esku-hartze sozialeko programekin, etab., lotura dutenak) eta bazterketa-arriskuan dauden gazteak.
- Sustapen ekonomiko, kultural, gizarte-ekintza, eta hezkuntza-marko bateko proiektuak.

**Sarea eta trakzio-ahalmena**

| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
|---|---|---|---|---|

- Batik bat, 4 sareren parte dira:
  1. CREFAB, sormen eta fabrikazio digitaleko zentroen estatuko sarea. Sortzaileak eta bazkideak.
  2. Fab Lab sarea. Fabrikazio digitaleko laborategien sare global nagusia, MITekin lotua (Bostongo Unibertsitatea). Bilboko Fab Laben egoitza ofiziala; sare ofizial eta nazioartekoaren parte dira. Gure laborategia KSIn espezializatuta dago.
  3. Maker Faire sarea (Make Magazineri lotua). Maker mugimendu eta kultura globalaren sare nagusia. Maker Faire Bilbaoren sortzaileak eta antolatzaileak.
  4. Burning Man. Duela gutxi sortzaile eta antolatzaileen taldearekin lankidetzan aritu dira; gaur egun Original Contact dira Euskal Herrirako.
- Europako zenbait proiektutako kide dira, bai Creative Europe eta bai Horizonte 2020koak.
- Hainbat sarerekin ari dira lankidetzan: UPV-EHU (Arte Ederrak), Film Comission Bilbao, Darwin Ecosytem, Azkuna Zentroa, Lanbide Heziketako zenbait zentro, BM30, Deustuko Unibertsitatea, Zarata Fest, EIDE, etopia Arte Zentroa, Ibecivis, Civersity, etab.

ERANSKINA, ‘SORKUNTZA SOSTENGATZEKO SISTEMA BATERANTZ EUSKADIN’ AZTERLANARENA

SORKUNTZARI ZUZENEKO SOSTENGU ESTRUKTURALA EMATEKO ERAGILEAK



# GARAION SORGINGUNEA

**Hemendik jarduten du:** Otaza Auzoa z/g. 01206, Ozaeta (Barrundia)
**Lurraldea:** Araba
**Webgunea:** https://garaion.eus
**Harremana:** garaionsorgingunea@gmail.com
**Tipologia:** Pribatua/Gizarte-sektorea
**Erakundeen babesa:** Eusko Jaurlaritza
**Arreta-sektorea:** Eszenikoak eta zuzenekoak (zirkurako egokitua); arte plastikoak - Land art-Eskulangintza garaikidea (zuntz naturalak); bitartekaritza

Landa ingurunean kokatutako sorkuntzarako espazioa. Hiru ardatz nagusiren inguruan egituratzen dute beren jarduera: sormena, izadia eta gizarte-ondarea. Sormen-prozesuak garatzeko tokia, prestakuntza eta sostengua eskaintzen dute. Sortzaile arabarretan espezializatu dira, emakumeak bereziki, euskarazko sorkuntza, sortzaile gazteak eta/edo hasten ari direnak, diasporaren sortzaileak. Espazio egokia da zirku-praktikak egiteko eta erakusketarako. Elementu bereizle gisa, Land-Art deitua dute, artearen eta izadiaren bidez adieraztea, eta artean ikertzea eta esperimentatzea zuntz naturalekin eta eskulangintza garaikidearekin.
(Iturria: Garaion Sorgingunea).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

- 300 m2ko eszena gunea (altura 6,20 m).
- Lau lan-areto 50na m2koak.
- Arte plastikoetarako lantegia.
- Ostatua.

### Baliabide materialak

- Oinarrizko baliabide teknikoak.
- Zirkuko materiala (oihalak eta trapezioak).

### Baliabide immaterialak

- Prestakuntza eta lagun egitea artistentzat edo arte-zuzendaritzan.
- *Work in progress* aurkezpen publikoak hamabost egunean behin, programa pilotuak, lehen irakurraldiak, etab.
- Produktu amaitu eta filmatuaren erakusketa.
- Topaketa profesionalak artista eta programatzaileen artean, Land-Art artisten nazioarteko biurtekoa, emakume artisten topaketak, eta beste...
- Zabalkundea harreman-sarean eta ikuskizunaren sustapena ekoizpen aurreko fasean.

### Zerbitzuak eta programak

Egoitza ireki eta iraunkorren programa, urtean zehar, eskaera bidez, ondorengo modalitate hauetan:

1. **Egoitza iraunkorrak:** Proiektuak erregularki garatzeko.
2. **Egoitza espezifikoak:** Proiektu zehatz bat garatzeko denbora jakin baten barruan.
3. **Egoitzak gonbidapen bidez:** Proiektu espezifikoak gauzatzeko (espezialistak, arte-zuzendariak, diasporako artistak, ikerketa- eta esperimentazio-proiektuak).
4. **Egoitzak prestakuntzarako:** Prestakuntza gaietan sortzaileei sostengua emateko.

## ANALISI-ALDERDIAK

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | **5** |

- Egonaldietarako deialdi irekia eta iraunkorra.
- Sorkuntzara zuzendutako inguruneko baliabide publikoak eskura izateko koordinazioa.

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | **3** | | |

- Zirku eta Land-Arteko espezialistek aitortu eta baloratutako espazioa.

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | **3** | | |

- Izadia eta artea batzen dituzten proiektuak bultzatzea. Landa-jakinduria eguneratzea eta arte garaikide urbanoarekin aberastea.

### Sarea eta trakzio-ahalmena

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | **3** | | |

- Honako hauen parte da: Karraskan, Erkide, EH Coop 57.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako programatzaile eta kultur eragileekiko harremana.
- Zuzeneko lankidetza Txatxilipurdi, Topagune, Oihaneder eta Etxeako!-rekin. (Euskararen sustapenerako kultur elkarteak).
- Lankidetza-proiektuak Huhezirekin (Mondragon Unibertsitatea).




# HARROBIA

**Hemendik jarduten du:** Langaran kalea, 3. 48004 Bilbo
**Lurraldea:** Bizkaia
**Webgunea:** http://www.harrobia.org
**Harremana:** info@harrobia.org
**Tipologia:** Publikoa (Kudeatzailea: Eskena)
**Erakundeen babesa:** Bilboko Udala
**Arreta-sektorea:** Eszenikoak eta zuzenekoak

Berrikuntza eszenikorako zentroa. Profesionalek eta profesionalentzat diseinatua, berrikuntzaren aldeko apustua egiten du ekoizpen-prozesuetan eta zerbitzu-bikaintasuna bilatzen du, hori guztia bertan egosten diren ikuskizunen kalitatean isla dadin. Konpainiak gaur egungo sorkuntza, ekoizpen eta kontsumo kulturaleko modu berrietara egokitzea errazteko beharrezkoak diren metodologia, ezagutza eta baliabideak eskaintzea bilatzen du. Ia 1.000 metro karratuko azalera du, hiru alturatan banatuta, eta prozesu eszeniko osoak hartzeko beharrezkoak diren azpiegitura tekniko guztiak ditu, proiektuaren ideiatik eta ekoizpen aurretik hasi eta abian jarri arte, erakustaldi kontrolatua eta ikuskizun eszenikoen sustapena barne direla, guztiak ere baldintza profesionaletan. (Iturria: Harrobia).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

- Produkzio- eta abiarazte-aretoa.
- Entrenamendu aretoa.
- Areto teknikoa, argia eta soinua diseinatzeko.
- Ikus-entzunezko materiala editatzeko aretoa.
- Bilera-aretoa.
- Ikastaro teorikoetarako aretoa.
- Ikastaro praktikoetarako aretoa.
- Atseden gela.
- Karakterizazio-aretoa.
- Eszenografia tailerra.
- Erabilera erkideko aretoa.
- Erabiltzaileen ostaturako etxebizitza-egoitza.

### Baliabide materialak

Pieza eszenikoak garatu ahal izateko baliabide teknikoak.

### Zerbitzuak eta programak

Zerbitzu hauek eskaintzen dizkie konpainiei:

1. Antzerki- eta dantza-ikuskizunen ekoizpena eta abian jartzea maila artistikoan eta teknikoan.
2. Entrenatzeko tokia antzerki eta dantzarako.
3. Antzerki-ikerketa eta berrikuntzako proiektuak.
4. Prestakuntza profesionalentzat.
5. Egonaldi artistikoak.

## ANALISI-ALDERDIAK

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Sarbidea ordainketa-tarifa bidez, sostengu-modalitate desberdinetan.

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria.

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Arte eszenikoak oro har: antzerkia (aretokoa eta kalekoa), dantza, magia; filmaketak eta ikus-entzunezko grabazioa. Antzerkia eta ekitaldi komunitarioak.

### Sarea eta trakzio-ahalmena

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Karraskaneko kide da. Lankidetza-hitzarmenak sustatzen ditu sektoreko erakundeekin: Eskena, ADDE, Artekale, MIE, Dantzerti, etab. Beste sozial batzuk ere bai, hala nola Gernika Gogoratuz, Tendel, etab. ESKENArekin batera, KZBren –Kultura Zuzenean Bizirik– sustatzaile izan da, non biltzen baitziren MIE, EAB, Musikagileak, ADDE, Musikari eta ATAE.



# HISTERIA KOLEKTIBOA

**Hemendik jarduten du:** Cortes kalea 29-31, 4F. 48003 Bilbo
**Lurraldea:** Bizkaia
**Webgunea:** http://histeriak.org/
**Harremana:** info@histeriak.org
**Tipologia:** Gizarte-sektorea (Histeria Kolektiboa elkartea)
**Erakundeen babesa:** EJ; BFA; Emakunde
**Arreta-sektorea:** TZeharkakoa

Arte/kultura/gizarte-eraldaketa ardatzaren inguruan lan egiten du Histeriak. Bilboko San Frantzisko auzotik eta kultura ernaltzeko xedez, #Karpinterian egiten dugu lan. Bulego baten eta egongelatxo baten arteko hibrido den horretan, hainbat arte-adierazpen ekoizten, laguntzen eta erakusten dira. (Iturria: Histeria Kolektiboa).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

90 m2ko aretoa + 10 m2ko bulegoa.

### Baliabide materialak

**Informatika**
- Mahai gaineko ordenagailu bat. Windows sistema eragilea, irudiak eta bideoa lantzeko Adoberen pakete osoarekin.
- Brother 1610w inprimagailua.

**Telefonia**
- Internet zuntzerako sarbidea.
- Telefonia finkoa.

**Ikus-entzunezkoak**
- Proiektagailua eta pantaila.
- Lumix bideo-kamera.
- Canon 60D argazki-kamera.
- 2 tripode.
- Argiztapenerako 3 foku.

**Soinua**
- Behringer markako 2 bozgorailu auto-anplifikatu.
- Zoom audio-grabagailua.
- Behringer markako soinu-mahaia.
- 4 eskuko mikrofono.
- Audioko kableen seta.
- 2 mikrofono-oin.

**Erremintak**
- Oinarrizko brikolajeko erremintak.

**Bulegoa**
- Material suntsikorra: folioak, errotuladoreak, boligrafoak, lekeda, guraizeak…

### Baliabide immaterialak

Testuinguruak sortzea, feminismoen eta artearen arteko lotura. Herritarren mugimenduak / sorkuntza.

### Zerbitzuak eta programak

**Egoitzak:**
1. Deialdi irekia UPV/EHUrekin lotura duten pertsonentzat, Arte Ederretako Fakultatearen Unibertsitate Hedadurarekin lankidetzan. Plaza horietako bat ikasturtean praktikatan dagoen lagunari izendatzen zaio, izan ere, ikasturte bakoitzean, 3 hilabetez prestatzera datorren pertsona bat izaten baitugu Histerian.
2. Deialdi irekia arte-sorkuntzaren eremuko edozein pertsonarentzat, kontuan hartu gabe zein den bere diziplina-praktika edota proiektua zein fasetan dagoen.
3. Histeria Kolektiboko kideek hautatutako proiektuen egoitzak.

**Egonaldiak:**
Espazioaren eta baliabide materialen erabilera eta oinarrizko laguntza hala eskatzen duen edozein sortzailerentzat, betiere lokalaren eskuragarritasunaren arabera.

**Programa KLINIKA:** profesionalizatzeko espazioa, laguntza pertsonalizatua proiektuentzat hainbat modutara gauzatzen dena: prestakuntzarako dispositiboak, topaketak artistekin, hitzaldiak eta tailerrak proiektuen kudeaketa administratibo eta ekonomikoaren inguruan. Hainbat ildo osagarri bultzatzen dira:
1. Laguntza pertsonalizatua Karpinterian lan egiten duten proiektuentzat, beren praktika artistikoen kudeaketan, administrazioan eta zabalkundean artistak eta bitartekariak ahalduntzeko xedearekin.
2. Administrazio/kudeaketa/finantzaketa-gaietan, sorkuntzan eta pentsamendu garaikidean prestatzeko espazioak.
3. Nazioarteko sareak irekitzea, testuinguruak kontrastatzea ahalbidetzeko eta Euskadiko arte eta kultura sektoreko profesionalen lanari bi noranzkotako bidea irekitzearren.
4. Bilerak tokiko artisten erkidegoarekin elkarren laguntzarako sare bat ehotzeko eta ezagutzen eta denboraren trukea sorrarazteko.
5. Webgunea. Informazioa eta komunitate guztiarentzat irekitako baliabideak partekatzeko webgune bat (2019an eraikitzekoa).

# HISTERIA KOLEKTIBOA

## ANALISI-ALDERDIAK

**Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

(marked: 5)

- Deialdi puntuala erresidentzien kasuan, eta iraunkorra, aldiz, egonaldien kasuan. Bazkide ez direnei irekita beti. Egonaldietan ez dago ekoizpenerako sostengurik, ez ordainsaririk. Erresidentzietan, bai.

**Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

(marked: 4)

- Eskaintza sistematizatu eta errepikaria.
- Eskaerara egokitzera irekita gaude: Sektoreari eskaintzen dizkiogun baliabideak erremintak dira, eta erreminta horiek –Klinika, adibidez– erabiltzaileak dituzten neurrian funtzionatzen dute; horrela, eskaintzak eta eskaerak agertzen dira, eta talde eragiletik kudeatzen diren zereginak.

**Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

(marked: 5)

**Sarea eta trakzio-ahalmena**

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

(marked: 3)

- Honako hauen parte da: WikiToki eta Espazioen trukerako Sarea.
- Klinika programaren esparruan, Europako erakundeekiko lankidetzak bultzatu dituzte, Italian edota Kroazian. Mexiko eta Peruko erakundeekin ari dira orain lanean.



# KUNARTE

**Hemendik jarduten du:** Abetxuko Herria 14. 01013 Vitoria-Gasteiz
**Lurraldea:** Álava
**Webgunea:** http://www.teatroparaiso.com/es/kunarte/
**Harremana:** info@teatroparaiso.com
**Tipologia: Pribatua**
**Erakundeen babesa:** Eusko Jaurlaritza eta Kultura Ministerioa. Small Size; Europa Creativa
**Ituna hauekin:** Gasteizko Udala, EJ; Interreg POCTEFA
**Arreta-sektorea:** Eszenikoak eta zuzenekoak.

KunArte artearen berrikuntzarako zentroa da, eta haur txikiei (0-6 urte) eta haiei laguntzera datozen helduei zuzentzen zaie (artistak, familiak, irakasleak, ikertzaileak, politikariak eta komunikabideak). Zentroaren jarduerak eta programak lehen haurtzaroak munduari eta arteari zuzentzen dien begirada jakin-nahi horretan inspiratuta daude. Bost urteko etengabeko bilaketaren ostean, sorkuntza-egintzak, prestakuntzakoak, erakusketakoak eta publikoen laborategia integratzen dira proiektuan, elkar elikatzen direlarik. KunArtek jarduera-abaniko zabala eskaintzen du arte-sorkuntza profesionala garatu eta sustatzeko xedearekin (Egonaldi artistikoak –proiektuen araberakoak eta jarraituak–, mentoring, lantaldeak, mintegiak...), bai eta herritarrek –txikienek eta beren familiek, bereziki– lengoaia artistikoak berenganatzea bultzatzeko ere, adierazpenerako eta komunikaziorako tresna modura erabili ahal dezaten. Proiektuaren kalitatea Europar Batasunak ebaluatu eta berretsi du EACEAren bitartez (Education, Audio-visual and Culture Executive Agency), KunArte - Paraiso Antzerkia, izan ere, Europa Creativaren Small Size Performing Arts for Early Years europar proiektu barruko partnerretako bat baita. (Iturria: Teatro Paraíso).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

- Espazio eszenikoa.
- Esperimentaziorako tokia
- Pabilioi industriala (Sorkuntzarako eta esperimentaziorako lantegiak).

### Baliabide materialak

- Eszenarako material teknikoa (argiteria, soinua eta proiekzioa).
- Eraikuntza eszenografiko edo artistikorako materialak eta erremintak.
- Eszenografiak, jantziak eta atrezzo birziklagarriak.
- Harmailak ikus-entzuleentzat.
- Instalazio artistiko birziklagarriak.

### Baliabide immaterialak

- Hainbat eremutako profesionalak –sorkuntza, bitartekaritza, kudeaketa, aholkularitza– biltzen dituen lantalde kohesionatu eta askotarikoa.
- Artistak eta proiektuak modu iraunkorrean artatzen dituen pertsona bat.

### Zerbitzuak eta programak

- Egoitza artistikoak hiru modalitatetan: proiektuak + iraunkorrak + irekiak.
- Proiektuaren kanpoko laguntza, hala maila artistikoan nola kudeaketan eta ekoizpenean.
- Publikoen laborategia, zeinak oinarri ematen baitie sorkuntzari eta ikerketari.
- Prestakuntza: zeharkakoa eta diziplina artekoa 4 ildotan:
  1. Mentoring small size performing arts for early years.
  2. KIMU proiektua.
  3. Artez Arte mintegia.
  4. Topaketa tematikoak.

## ANALISI-ALDERDIAK

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egonaldien deialdi irekia.

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria baina eskaeran oinarrituta eraikitzen dena.

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Lehentasunez zuzeneko arteen zenbait azpisektore (antzerkia, dantza, musika, magia, zirkua...) eta arte erlazionalak, eta herritarren hezkuntza artistikoa artatzen ditu.
- Bigarren mailan, artista plastiko eta ikusmen-arlokoak, idazleak, diseinatzaileak eta arte eta gizarteko proiektuak ditu jopuntuan.

### Sarea eta trakzio-ahalmena

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Honako hauen parte da: Espainiako Arte Eszenikoen Akademia, Biargi Sarea, Karraskan, Eskena, Small Size, TeVeo... ASSITEJ.



# KUTXA KULTUR

**Hemendik jarduten du:** Andre Zigarrogileen plaza 1. 20012 Donostia
**Lurraldea:** Gipuzkoa
**Webgunea:** www.kutxakultur.eus/es/kutxa-kultur/
**Harremana:** kutxakultur@kutxa.eus
**Tipologia:** Gizarte-sektorea | Kutxa Fundazioa
**Arreta-sektorea:** Maker kultura; erlazionalak; New Media Art

Kutxaren kultur egoitza da Kutxa Kultur. Plataforma hau proiekziodun kultura-eragileen eta artisten bizikidetza sustatzeko da, eta horien gorabideko talentu amateurrari laguntzeko ere bai. Kutxa kultur-ek kultura-joera berrien bila dabilen, bizimodu sozial, iraunkorrago eta solidarioagoaren alde egiten duen, kultura globalaren onena atzeman eta beren ingurunean gozatu nahi duen jendearen espirituaren sinonimo ere izan nahi du.
(Iturria: Kutxa Kultur).

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

Fabrika Espazioa: egoitzak modarako (showroom eta lanerako tokia) eta musikarako (entseguetarako eta grabatzeko lokalak).

Kutxa Kultur Enea: coworking kulturalerako gunea.

Artegunea: erakusketa-espazioa.

### Baliabide immaterialak

Testuinguru-sorkuntza, sarea hurbileko testuinguruan.

Kutxa Kultur Gelak: agora, espazio irekia.

### Baliabide materialak

**Fabrika:** Makineria, erremintak eta lanerako altzariak, modaren kasuan, eta soinu-materiala, musikarenean.

**Kutxa kultur Enea:** inprimagailuak, eskanerra, lanerako boxeak, bilera-gelak, banakako armairuak, officea eta Interneteko konexioa.

### Zerbitzuak eta programak

Egoitza programa Fabrika Espazioan:
1. **Kutxa Kultur Musika:** agertzen ari diren talde edo bakarlarien hazkunde eta garapen profesionala bultzatzea bilatzen du.
2. **Kutxa Kultur Moda**: urteroko egoitza sei diseinatzailerentzat, espazio iraunkor bat gordetzen zaie Fabrikan eta prestakuntza, sustapena, aholkularitza eta zabalkundea emateaz gainera, desfileak antolatzen zaizkie urtebetean.

Egoiliarren prestakuntza eta trebakuntza.

Aholkularitza eta prestakuntza enpresa-kudeaketa gaietan (Kutxa Kultur Enea).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA |

## ANALISI-ALDERDIAK

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Erresidentzietarako urteroko deialdiak musikaren eta modaren esparruetan.
- Fabrikako espazioa erabiltzeko eskaera (moda) eskabidearen eta tarifa ordaintzearen bitartez (modalitatearen arabera).

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria.

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Batez ere modaren eta musikaren esparruetan zentratua dago, baina baditu programa txikiagoak beste diziplina batzuetan ere.

### Sarea eta trakzio-ahalmena

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Hurbileko testuinguruarekin lan egitea, hala sorkuntza/artean, nola instituzio mailan.



# LA FUNDICIÓN

**Hemendik jarduten du:** Francesc Macià, 1-3. 48014 Bilbao
**Lurraldea:** Bizkaia
**Webgunea:** https://www.lafundicion.org/
**Harremana** info@lafundicion.org
**Tipologia:** Gizarte-sektorea (Asociación Puertas Abiertas La Fundición)
**Erakundeen babesa:** BFA; Bilboko Udala; EJ; INAEM
**Lankideak:** BBK, Bilboko Metroa, Tarima, AISGE Fundazioa
**Arreta-sektorea:** Eszenikoak eta zuzenekoak.

Sorkuntza garaikidea oro har erakusteko espazioa. Ikerketarako, sorkuntzarako, sentsibilizaziorako eta prestakuntza iraunkorrerako baliabide-zentroa. Barrualde-kanpoalde norabide bikoitzean dihardu behin eta berriro: tokiko sortzaileen sostengua eta haiek bistaratzea, estatu mailako eta nazioarteko konpainien presentziarekin batera. Lehenengo zentro espezializatua denez eta iraun duen denboragatik, La Fundición oinarriko jarduera, laguntza jarraitua eta ikusgarritasuna sortu diren tokietako bat izan da, eta hari zor zaio, Euskal Autonomia Erkidegoan, jardueraren jarraitasuna eta gaur egungo presentzia, dantzaren kasuan, bereziki. Era berean eta, hedaduraz, sorkuntza garaikidea eta joera berriak dira zentroaren ezaugarriak.
(Iturria: La Fundición).

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

**Azpiegiturak**

Lan-espazioak Zentroan.

**Baliabide materialak**

Eszenako material teknikoa.

**Baliabide immaterialak**

Euskal konpainiak estatu eta nazioarte mailan mugi daitezen lan egiten du.

**Zerbitzuak eta programak**

Sorkuntza- eta ikerketa-egoitzak edo egonaldiak konpainientzat: ikerketa-, sorkuntza- eta ekoizpen-prozesuei dagokienez, bistakoa da konpainiek espazio bat behar dutela beren prozesuetako fase horiek aurrera eraman ahal izateko; horregatik elkarrekin lan egitea proposatzen zaie konpainiei eta ekipamendua eta lanerako tokia eskaintzen zaie pieza edo ikuskizuna La Fundición-eko programan aurkeztu aurreko egunetan. Horrez gainera, hurbilketa-tresna gisa ere uler daiteke, sorkuntza-prozesuen, artista gonbidatuen eta bertako artisten artean zubiak eraikitzekoa, baita sorkuntza berri bat eta haren dramaturgia abian edo eszenan jartzearen egitura hurbilagotik ezagutzeko interesa duen edonorentzat ere.

Aholkularitza-zerbitzuak konpainiei, zabalkundea sustatzeko.

Mugikortasun-, nazioartekotze- (Regards Croises proiektua Frantzia eta Portugalekin) eta truke-programak (nazioan eta nazioartekoa).

Honako programa hauek bultzatzen ditu: La TEMPORADA, DANTZALDIA jaialdia, LEKUZ LEKU jaialdia, TINTO de VERANO (euskal konpainientzat soilik).

Ikus-entzuleen tailerra.

Prestakuntza programak.

## ANALISI-ALDERDIAK

**Irekitasuna eta sarbide publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)**

1 2 3 **4** 5

- Egonaldietarako deialdiak etenik gabe eta harreman jarraitua beste espazio eta konpainia batzuekin ikusgarritasun aukerak sortzeko helburuarekin

**Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)**

1 2 3 **4** 5

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria

**Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)**

**1** 2 3 4 5

- Espezializazioa gorputzaren poetikan/sorkuntza eszeniko garaikidean

**Sarea eta trakzio-ahalmena**

1 2 3 **4** 5

- Antzerki Alternatiboen Sarean eta AcieloAbierto Sarean kidetua
- Nazioarteko mugikortasuneko programak nazio eta nazioarte mailan

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA |



# TABAKALERA

**Hemendik jarduten du:** Plaza de las cigarreras, 1. 20012 Donostia

**Lurraldea:** Gipuzkoa

**Webgunea:** https://www.tabakalera.eu

**Harremana:** tabakalera@tabakalera.eu

**Tipologia:** Publikoa

**Erakundeen babesa:** Eusko Jaurlaritza; GFA; Donostiako Udala

**Arreta-sektorea:** Arte plastikoak eta bisualak, Ikus-entzunezkoa, Maker kultura, Zeharkakoa

Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa elkartzeko, elkarrizketarako eta elkarrekin sortzeko gunea da, izaera polifonikoa du, eta hausnarketak eragitea eta galderak piztea ditu asmo. Hona bere jarduketa-esparru nagusiak: zinema eta ikus-entzunezkoak, arte garaikidea eta sormen- eta kultura-industriak; bereziki diseinua eta gastronomia sortzailea. Sorkuntza-prozesuen sostengua da zentroaren motor nagusia. Horretarako, sostengua eta baliabideak eskaintzen dizkie hainbat diziplinatako sortzaileei. Laborategi bat ere bada, ideia eta proiektuen ernalkuntza gurutzaturako, non zubiak eraikitzen diren sortzaileen eta industriaren artean, eta, horrela, sistema kultural osoari laguntzen zaio. Fitxa honetan sorkuntza sostengatzeko hiru ekimen zehatz nabarmentzen dira: Sortzaileen Gunea, praktika artistikoaren garapenerako zerbitzuak eta baliabideak eskaintzen dituen aholkularitza gunea; Hirikilabs, kultura digitaleko laborategia, teknologien erabilera sozial, kritiko, sortzaile eta elkarlanekoaren inguruan lan egiten duena; eta 2DEO, ikus-entzunezko laborategi bat, industriaren eta teknologiaren sektorean proiektuak bultzatzen dituena, euskaraz bereziki.
(Iturria: Tabakalera).

## BALIO-KATEA

- ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA
- PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA
- PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

HIRIKILABS: fabrikaziorako, laborategirako eta diseinurako espazioa.

SORTZAILEEN GUNEA: ekoizpen espazioa / tailerra; 3 kabina irudia editatzeko; 2 kabina soinua editatzeko; eszenikoen lanerako gunea; platoa; argazkigintza laborategia eta Hirikilabsekin partekatutako beste azpiegitura batzuk.

2DEO: coworking espazioa, ediziorako salak eta 2Deo antzerkia.

### Baliabide materialak

HIRIKILABS: fabrikazio digitalerako tresnak, hardware irekia, inprimaketa, robotika, elektronika, soinuaren esperimentazioa eta zurgintzarako eta metalerako erreminta industrialak.

SORTZAILEEN GUNEA: ikus-entzunezko materiala.

2DEO: tresneria teknologiko aurreratuak (ediziorako hardware eta softwarea), proiekzio-tresneriak eta HDR 4K monitoreak, 7.1 audio sistema.

### Baliabide immaterialak

HIRIKILABS:
- Testuinguru-sorkuntza, sarea, herritarren esperientzia kolektiboen sustapena.
- Lan-ildoa: teknologiak hibridatzea, gizarte- eta erkidego-mugimenduak.
- Teknologiarekin lotura duten teknika eta erreminten esperimentazio sortzailerako testuingurua.

SORTZAILEEN GUNEA:
- Artistak bistaratzeko programa.
- Sorkuntza-prozesuak laguntzea eta sostengatzea sorkuntza-prozesuaren ezinbesteko parte gisa.
- Sareen eta harremanen sorkuntzan lankide izatea, bai erakundearen barruan eta bai kanpoan.

2DEO:
- Ikus-entzunezkoen industrian erabiltzen diren lanerako software profesionalak, Avid biltegiratze-sistema partekatua eta Blackmagic Davinci sistema kolorea editatzeko.
- Nazioartekotzea: esperimentazio-prozesuetan dauden nazioarteko enpresekiko lankidetza bultzatzea.

# TABAKALERA

**Zerbitzuak eta programak**

HIRIKILABS:
**Prestakuntza:** teknologia aplikatua, laborategiko teknikak.
**Bitartekotza:**

- Hirikilabs Plaza (proiektuen aurkezpena deialdiaren eta sostengatzearen bitartez).
- DIY-tik (do it yourself) DIWO-rako (do it with others) laborategia.
- Erabiltzaileek eta sortzaileek proposatutako gaietara irekitako lantalde irekiak.

**Deialdiak:** Hirikilabs Plazak bi deialdi egiten ditu urtean prozesu kolektiboaren bitartez proiektuak garatzeko.

SORTZAILEEN GUNEA:
**Egonaldiak:**

**Nazioarteko egonaldietarako urteroko deialdia:** modalitate desberdinetan praktika artistikoen barruan. Barnean hartzen dituzte proiektuaren ekoizpenerako aurrekontua, bidaia, dietak hilabete bakoitzeko eta egonaldia.

**Deialdiak beste erakunde batzuekin lankidetzan:**

- Egoitza Lurrean: ekologiarekin elkarrizketan dagoen proiektu artistiko baterako deialdia.
- Ikusmira Berriak: ikus-entzunezko proiektuak garatzeko deialdia zinegileentzat.

**Beste erakunde batzuekin trukatzeko egonaldiak:** koreografo, artista eta komisarioei zuzendutako nazioarteko trukerako modalitate desberdinak daude.

**Espazioak eta ekipamendua lagatzea:** deialdi iraunkorra laneko espazioak erabili ahal izateko.

- A modalitatea: kontzeptualizazio fasean dauden proiektu artistikoei egiten zaie leku, ekoizpen faseari ekiteko zorian edo garapenean daudenei.
- B modalitatea: abian jarrita eta formalizazio edo ekoizpen fasean dauden proiektu artistikoak soilik ametitzen ditu, espazio edo beharrizan tekniko espezifikoak eta erabilera funtzional eta/edo berehalakoa behar dutenak.

**Prestakuntza eta gaikuntza:** cursos formativos y programas intensivos especializados en práctica comisarial y un programa intensivo de verano dirigido a artistas que proporciona espacio concreto para el desarrollo de la práctica artística.
**Bistaratzea:** estudioak irekitzea, artista solasaldiak, emanaldi bereziak.

2DEO:
**Lekua lagatzea:** coworking gunea esperimentazioaren eremura zuzenduta (erabiltzeko baldintza bakarra) eta proiektu hautatuetara eta kanpoko beste proiektu batzuetara irekita dago.
**Dealdian honako hauek eskaintzen dira:** laguntza ekonomikoa, baliabide teknikoak eta bideratzaileen laguntza ikus-entzunezko sektorean sortzeko. Deialdi honen helburu nagusia esperimentazio faseari eta ikus-entzunezko proiektuen garapenari sostengua ematea da.

## ANALISI-ALDERDIAK

**Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
|---|---|---|---|---|

- Hirikilabsek herritarrei irekitako ildo programatikoak ditu tailer-mintegi formatuan (Hirikikas) eta ikerketa irekian (Talde Irekiak). .
- Sortzaileen Gunea: sortzaileei zuzendutako lan-espazioak lagatzeko deialdi irekia eta etengabea du, batetik, eta deialdi espezifikoak, bestetik..
- 2Deok deialdi irekia du.

**Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
|---|---|---|---|---|

**Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)**

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria. Jardueraren parte batek eskaera puntual edo espezifikoei erantzuten die.

**Sarea eta trakzio-ahalmena**

| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
|---|---|---|---|---|

- Programa bakoitzak bere jarduera-esparruarekin lotura duten hainbat erakunderekin mantentzen ditu harremanak. Horien artean nabarmentzekoa da Hirikilabs, harremanak baititu Irekia, Social innovation Community EU, Bherria, hezkuntza-erkidegoa, Elhuyar, Aranzadi, UPV/EHU, Medialab Prado edo beste espazio maker batzuekin. Sortzaileen Gunea: Cristina Enea Fundazioa, Zinemaldia, Azala, Dantzaz, Zinetika, EUNIC, Kooshk Teherán, Conseil des Arts et des Lettres du Québec -CALQ-, Mophradat, Arts Initiative Tokio. 2DEO: Zinemaldia, enpresa espezializatuak.



# WIKITOKI

**Hemendik jarduten du:** Harrobi Plaza, 5 - 2º. 48003 Bilbao

**Lurraldea:** Bizkaia

**Webgunea:** http://wikitoki.org/

**Harremana:** info@wikitoki.org

**Tipologia:** Privado (Asociación cultural)

**Erakundeen babesa:** Hitzarmena Bilbao Ekintzarekin (tokiaren alokairurako dirulaguntza), Eusko Jaurlaritzaren Sorgune dirulaguntza (2016 eta 2018 artean), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultur Ekintza dirulaguntza (2018)

**Arreta-sektorea:** Zeharkakoa

Wikitoki lankidetza-praktikarako laborategi bat da, hauen biltzen dituena: kultur ekintza, performatibitate artistikoa, gizarte-berrikuntza, garapen komunitarioa, ekonomia solidarioa edota teknologia libreak. Lanerako eta elkarretaratzeko leku bat, 2014an abian jarri zena eta auto-kudeaketa bidez funtzionatzen duena; eragile onuradun berberak dira hainbat modutara inplikatzen direnak erabakiak hartzeko orduan eta proiektua kudeatu behar denean. Praktika irekiko komunitate bat, non beren artean erlazionaturiko lau lan-ardatzen inguruan esperimentatu daitekeen: 1. Antolakuntza-ereduak eta harreman- eta lan-protokolo horizontalak eta banatuak; 2. Kultur esperimentazioko ereduak, subjektibotasun berrien ekoizpena eta elkarrekiko sorkuntza; 3. Ekoizpen-eredu aske eta irekiak; eta 4. Bizitza erdian jarriko duten gizarte-erreprodukzioko ereduak. Hori guztia honako hauetan mamitzen da: proiektuak diseinatzea eta gauzatzea, tailerrak, topaketak, egoitzak, gora datozen ekimenen sostengua, sareetan parte hartzea, etab.
(Iturria: Wikitoki)

## BALIO-KATEA

- ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA
- PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA
- PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

Wikitokik 370 m2ko espazio balioaniztuna du. Espazio horretan sartzen dira:

1. Funtzio anitzeko espazioa: gune ireki balioaniztun bat, 100 m-tik gora dituena, 50-70 pertsonaren aldi bereko jarduerak har ditzakeena.
2. Bilera-gelak eta tailerrak: 3 bilera-gela, 10-15 metrora artekoak.
3. Bulego gisa egokitutako espazioak: 20 pertsona aldi berean lanean aritzeko modua eskaintzen dute. Officea, komunak eta espazio erkideak.

### Baliabide materialak

Badira hainbat baliabide partekatu, egoiliar guztien –edo zentroko beste zeinahi erabiltzaileren– eskura daudenak:

1. Wifi edo kable bidezko konexioa erabiltzaileek partekatutako sare batean.
2. Wifi konexio irekia bisitarientzat.
3. NAS, artxiborako espazio partekatua hodeian.
4. Koloreko A3 inprimagailua tokiko sarean.
5. Proiektagailua.
6. Ikus-entzunezko tresneria: kamerak, mikrofonoak, bozgorailuak...
7. Bideo-konferentziarako tresneria. .
8. Material suntsikorra.
9. Erremintak.

### Baliabide immaterialak

Barne-funtzionamenduko protokoloak, beste erakunde batzuetara egokitzeko.

Denbora-bankua..

RIE (truke-sare hau Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoen artean baliabideak partekatzeko proposamen bat da).

Testuinguru eta ingurune erlazional fisikoak eta digitalak sortzea.

Prozesu esperimentalak.

### Zerbitzuak eta programak

**Iraupen luzeko egonaldiak:** Wikitokiko bazkide egitea eskatzen da baldintza gisa, eta bere kudeaketan parte hartzea (deialdia irekita dago etengabe).

**Iraupen laburreko egonaldiak:** 4 hilabete artekoak, izaera esperimentala eta aplikatua dute. Urtero deialdi bat egiten da Wikitokiren ikerketa-ildoekin lotura duten hiru egonaldirako. 2.500 €ko baliabide-poltsa eskaintzen da eta prozesuan lagun egitea.

**Proiektu kidetuak:** espazioaren erabilera erregularra lagatzen zaie beren jarduerak gara ditzaten eta, dituzten beharrizanen arabera, baliabide-poltsa bat ere jaso lezakete, gastu materialetarako edo jarduerak antolatzeko (2.000 € artekoa).

Enbaxadak, Wikitokitik beste erakunde batzuen funtzionamenduan eta hainbat proiekturen garapenean inplikatzea.

# WIKITOKI

## ANALISI-ALDERDIAK

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | **4** | |

- Wikitokiko bazkide egiteko aukera irekita dago urte guztian zehar eta eskabide-formulario bidez egiten da. Bazkide gisa sartzen direnek Wikitokiren kudeaketa partekatuan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute (konpromiso hori hilean 8 ordukoa da).
- Gainera, egonaldietarako deialdiak daude urtero, tokia lagatzen zaie lankidetzan dauden proiektuei edo auzoko erakundeei eta zenbait jarduera antolatzen dira, ikus-entzuleentzat irekiak.

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | **3** | | |

- Wikitoki, neurri handi batean, esperimentatzen ari den proiektu bat da, bere antolakuntza moduari dagokionez. Horrek esan nahi du antolakunde egituratua duela, baina, aldi berean, etengabeko aldaketan dagoela, eta, hortaz, egonkortasun gutxikoa (adib. une honetan batzar eredu batetik eredu soziokratiko batera igarotzen ari da).

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | **5** |

- Wikitokin zertzen diren praktika asko diziplinaz haraindikoan, hibridazioan eta elkarrekin sortzean oinarritzen dira. Praktika artistikoek, batez ere, performatiboarekin, testuinguruarekin eta erlazionalarekin dute zerikusia, eta harreman-puntu asko dituzte beste esparru batzuekin, diseinuarekin, esate baterako.

### Sarea eta trakzio-ahalmena

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | **3** | | |

- Wikitoki KARRASKAN edo Sarean bezalako elkarte eta sareen parte aktiboa da, baina, batez ere, bere bazkideek dituzten harremanetatik elikatzen da, tokiko, estatuko eta nazioarteko hainbat sarerekin konektatuta baitago, adibidez: Arquitecturas Colectivas, Culture Action Europe, EIDE, Gizarte, Goratuz, Innobasque, Inteligencias Colectivas, Olatukoop, PublicLab, REAS.



# ZAWP (ZORROTZAURE ART WORK IN PROGRESS)

**Hemendik jarduten du:** Deustuibarra, 47. 48014 Bilbo

**Lurraldea:** Bizkaia

**Webgunea:** https://www.zawp.org/

**Harremana:** info@zawp.org

**Tipologia:** Gizarte-sektorea (Hacería Arteak Kultur Elkartea)

**Erakundeen babesa:** Eusko Jaurlaritza; Bilboko Udala; BFA; Erasmus+

**Partnerrak:** iSiFuera, , Les Darwiniens, CoworkLisboa, Darwin eco-système, Lewisham, ROJC, LX Factory, Erasmus For Ypung Enterpreuners, Education & Mobility

**Lankideak:** La Salve, La Caixa, Hirukide, Radio7Tele, jaureguizar.

**Arreta-sektorea:** Zeharkakoa

ZAWP Zorrotzaurre Art Work in Progress erakundearen siglak dira. 2008an sortu zuen proiektu hau Haceria Arteak Kultur Elkarteak, Zorrotzaurre eta Deustuko Erribera auzoetarako onartutako hirigintza-planaren "bien bitartekoari" aurre egiteko asmoz. ZAWP pertsona askok osatutako mugimendu finkatua da egun, eta auzoaren biziberritze sozial, ekonomiko eta kulturalaren alde lan egiten du sorkuntzaren, esku-hartzearen eta oroimena baliaraztearen bitartez. Kudeaketa-taldeak ZAWPen ekimen guztietan inplementatzen ditu ikerketa, garapena eta berrikuntza, zeharkako ardatz gisa, elkarte beraren sustapenez edota ildo eta zentzu horretan lan egiten duten ekimenei sostengua emanez. (Iturria: ZAWP).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA<br>KONTZEPTUALIZAZIOA<br>PRESTAKUNTZA |
| PREPRODUKZIOA<br>PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA<br>POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

Erakusketa tokiak: Garabia ZAWP Aretoa, Haceria Aretoa (prestakuntza eta kultur klubak; grabazioak eta entseguak), La Terraza –(TerraZAWP - topagunea), ZAWP Denda. (ZAWPERSen ekoizpenaren erakusketa eta salmenta eta elikatzeko oinarrizko artikuluen saltokia).

Sorkuntza-espazioak: lanerako espazio partekatua (250 m2) ETC02, ZAWPLab (eraldaketa urbanoa eta soziala xede duten nazioarteko egoitzak), Loft-a (coworking), RD47 (sorkuntza-tailerra eta lanerako tokia).

### Baliabide materialak

Bulegoa eta coworking-a.

Ikus-entzunezko tresneria.

Eszena argiztatzeko ekipoa.

Ekoizpen-ekipoa.

Plataforma digitalak: Coworking digitala (COOERP) eta EGINBOOK 4.0.

Biltegia eta tailerrak.

Ekoizpen eta ikerketako egoitzen hostela. (9 ohe), jangela eta sukaldea. Arropa-garbitegi zerbitzua.

### Baliabide immaterialak

Testuingurua sortzea.

Ekosistema kulturala.

Prestakuntza.

Esperientzia hirien biziberritzean, EGINBOOK Urban metodologiaren bidez.

Nazioarteko proiekzioa (Europa eta Hego Amerika), sareak eta proiektuak.

### Zerbitzuak eta programak

**Nazioarteko egonaldien programa,** helburuak hauekin: hainbat sorkuntza-espaziotan esperimentazioa eta ikerketa suspertzea, sortzaileen sustapenerako lagungarri gertatzea eta nazio eta nazioarte mailako hainbat profesionalen mugikortasuna bultzatzea.
3 modalitate daude:

1. **Auto-finantzatutako egonaldiak:** sartzen den pertsonak bere gain hartzen du laneko espazioaren, ostatuaren eta dieten kostua. Zabalkunde eta komunikazio arloan laguntzea eta deskontuak lanerako espazioen erabileran.
2. **Bekaz lagundutako egonaldiak ikerketarako eta sorkuntzarako:** barnean sartzen dira ostatua, lanerako espazioa, eta zuzeneko ekarpen ekonomikorako aukera, gehienera jota, guztizko aurrekontu-balorazioaren % 50era heldu arte.
3. **Kudeaketako egonaldi profesionalak:** ostatua, lanerako espazioa, sostengua zabalkunde eta komunikazio arloan. Norberaren gastuak egoiliarraren kargura.

# ZAWP (ZORROTZAURE ART WORK IN PROGRESS)

## ANALISI-ALDERDIAK

**Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)**

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Espazioetarako sarbidea egonaldietarako urteroko deialdiaren bitartez.
- Lanerako, sorkuntzarako eta erakusteko espazioen alokairua.

**Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)**

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria.

**Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)**

| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
|---|---|---|---|---|

**Sarea eta trakzio-ahalmena**

| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
|---|---|---|---|---|

- Honako hauen parte da: Trans Europe Halles, Karraskan, European Network of Living Labs, ResArtis, FIBICC, ENCC.



# ZIRKOZAURRE

**Hemendik jarduten du:** Deustuibarra, 47. 48014 Bilbo
**Lurraldea:** Bizkaia
**Webgunea:** http://zirkozaurre.com
**Harremana:** zirkozaurre@gmail.com
**Tipologia:** Gizarte sektorea
**Erakundeen babesa:** Eusko Jaurlaritza; Bilboko Udala; BFA
**Arreta-sektorea:** Eszenikoak eta zuzenekoak.

Zirkozaurre zentroaren xedea zirku eta performance arteak sortzea eta erakustea da; Zorrotzaurre barrutian dago kokatuta, Bilbon, eta zirkuarekin zerikusia duten hainbat diziplina partekatzeko eta elkarrekin bizitzeko pentsatuta dago, aipatutako diziplina horiek auzoan txertatu, indartu eta Bilbora eta EAEko lurralde osora proiektatu daitezen. Zirkozaurrek zirkuko arteen eta kaleko antzerkiaren sorkuntza, prestakuntza eta erakusketa sostengatzen ditu. Prestakuntza-eskolan eta egoitza artistikoetan oinarritzen den proiektua da. Helburua zirkuko sektorea profesionalizatzea da, prestakuntzan, sorkuntzan eta bitartekaritzan lan eginez, duela 6 urtetik hona garatzen ari garen proiektuei esker.
(Iturria: Zirkozaurre).

## BALIO-KATEA

| |
|---|
| ESPERIMENTAZIOA KONTZEPTUALIZAZIOA |
| PREPRODUKZIOA PROTOTIPOAK EGITEA |
| PRODUKZIOA POSTPRODUKZIOA |

## SOSTENGU HAUEK EMATEN DITU

### Azpiegiturak

Prestakuntza fisikorako sala edo gimnasioa.

Airekoen sala eta areto balioaniztuna.

Agertokia.

Aldagelak, atseden-tokia eta jangela.

### Baliabide materialak

Baliabide tekniko espezializatuak.

### Baliabide immaterialak

Sostengua eta aholkularitza Haztegia programara biltzen diren proiektu artistikoei, plataforma digital eta IKT zerbitzuen bidez.

### Zerbitzuak eta programak

**Egoitza artistikoak**
**Haztegia programa, sorkuntza-mintegia:** deialdi irekien bidezko egonaldiak (lagun egitea artistei, kudeatzaileei, etab; artista amateurren profesionalizatzea erraztea; proiektu artistikoen sostengua eta aholkularitza).
3 modalitate daude:
1. **Modalitate profesionala:** proiektu artistikoa sorkuntza fasean duten zirku-konpainiei zuzendua
2. **Sorkuntza-laborategi modalitatea:** malabaristei zuzenduta dago; funtsean lan- eta ikerketa-prozesu bat da nondik sorkuntza berritzaile bat jaioko den
3. **Txertatze modalitatea:** sorkuntza artistikoan profesionalizatu nahi duten artista edo kolektibo amateurrei zuzendua.

**Laguntza eta bitartekaritza.**

**Prestakuntza eta trebakuntza:** zirkuari lotutako diziplinetan.

## ANALISI-ALDERDIAK

### Irekitasuna eta irisgarritasun publikoa (1 irekitasun txikiagoa / 5 irekitasun handiagoa)

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Prestakuntza eskola eta herritarrei irekita dauden koloniak.
- Egonaldi artistikoak deialdi bidez edota tokia lagatzea/alokatzea beharrizan partikularren arabera.

### Egituratze-maila (1 gutxiago egituratutako eskaintza / 5 gehiago egituratua)

| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Egituratze sistematizatua eta errepikaria (prestakuntza, erakusketa eta sorkuntzarako sostengua).

### Espezializazioa (1) vs. Zeharkakotasuna (5)

| **1** | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Zirku-arteetan espezializatutako zentroa.

### Sarea eta trakzio-ahalmena

| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|

- Honako hauen parte da: Artekale, Karraskan eta Gizarte-hezkuntzako Zirku Eskolen Federazioa.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

K
RR S
K N

KULTURA BERRIKUNTZAN
BERRIKUNTZAREN KULTURA
INNOVACIÓN EN CULTURA
CULTURA DE LA INNOVACIÓN

KARRASKAN.ORG

COLABORA BORA

CONEXIONES improbables®